

**ADMINISTRAZIO ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL JARDUERAK
BURUTZEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA
FISKALA**

2017ko irailaren 26ko Udalbatzarrak onartua

(GAO 242 zk. – 2016-12-21).

Indarrean 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Salbuespenak:

Ondorengo eranskinak, 2017-2018 ikastaroak

11 "HERNANI" eta "KANTUZ" udal musika eskolak

12.- Kultura Saileko ikastaroak

13- Udal Euskaltegia

16.-Hernaniko Udal Kiroldagiko Zerbitzuak erabiltzea: jolasa eta aisialdiko igerilekuak, ikastaroak eta udako jarduerak.

2017ko otsailaren 28ko Udalbatzarrak onartua

(GAO 96 zk. – 2017-05-22).

Aurkibidea

I. Xedapen orokorra	6
1. artikulua	6
2. artikulua	6
II. Zergagaia	6
3. artikulua	6
III. Subjektu pasiboa	6
4. artikulua	6-7
5. artikulua	7
6. artikulua	7
IV. Salbuespenak, murrizketak, hobariak	7
7. artikulua	7
1.Xedea eta betebeharrak, epeak	7-8
2.Aplikatu beharreko salbuespenak, hobariak eta murrizpenak	8-10
3.Bizikidetzaren unitatearen edo elkarbizitzaren unitatea: definizioa	10-12
4.Bizikidetzaren unitatearen diru sarrerak kalkulatzeko oharrak	12-13
5.Ondare mugak	13-15
6.Aurkeztu beharreko agiriak	15
8.artikulua	16
VI. Kuota	16
9. artikulua	16
VII. Sortzapena eta zergaldia	16
10. artikulua	16
VIII. Likidazioa eta ordainketa	16
11. artikulua	16
IX. Tasen kudeaketa	17

12. artikulua	17
X. Amaierako xedapena	17
Eranskina	17
1. Auto-taxi eta gainerako akura ibilgailuen lizentzia eta baimen administratiboak ematea	17-18
2. Hirigintzako lizentzia ematea	18-20
3. Hirigintza gaietan lizentzia, baimena eta espedienteak luzatu eta ematea	20-21
4. Establezimenduak irekitzeko eta instalazioak ezarri edo aldatzeko lizentzia	21-24
5. Su itzalketa eta herri babeserako zerbitzuak	24-25
6. Udal hilerria zerbitzuak eta emakidak gauzatzea	25-30
7. Saneamenduko zerbitzua	30
8. Hondakinen Bilketa	30
a) Eremu erresidentziala eta landalurra	32-36
9. Hornidura	36
9.1. Tarifak	36-39
9.2. Udal sarearekiko hartuneak	39
9.3. Sarrera lortzeko eskubideak	39-40
9.4. Kontagailuak aztertzea	40-42
10. Udal haurtzaindegia	42
11. "Hernani" musika eskola publikoa	42-44
1.1 "Kantuz" musika eskola	42-44
12. Kultura Saileko ikastaroak	44-47
13. Udal Euskaltegia	47-49
14. Uztaileko udalekuak	49
15. "Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatua***" erakunde autonomoko zerbitzuak erabiltzea. Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak izena aldatuta 2016ko irailaren 12a	49
15.1. Zaharren egoitza	49-52

15.2. Eguneko zentroa	52-55
15.4. Zaharren egoitzako aretoaren erabilera	55- 56
15.5. Etxez etxeko laguntza zerbitzua	56
1. Xedea	57
2. Zerbitzuko erabiltzailea izango direnak	
Zehaztea	57
3. Diru sarrerak nola zehaztu eta kalkulatu	57-58
4. Tasaren eta erabiltzaileen ekarpena	58-60
5. Ordaintzeko obligazioa dutenak	60
6. Galdagarritasuna	60
7. Kudeaketa, likidazioa eta kobrantza	60
15.6. Gizarte izaerako etxebizitza zerbitzua	61
15.7. Gizarte alojamenduaren zerbitzua	61
1. Helburua	61
2. Kontzeptua	61
3. Gizarte alojamenduaren zerbitzuaren erabiltzaileak	61
4. Diru sarreren kalkulua zehaztea	61-63
5. Zerbitzuaren erabiltzaileentzako tasa eta likidazioa:	63
1. Tutoretzapeko aparkamendua	63
2. Tutoretzapeko etxebizitza	63
3. Tutoretzapeko etxebizitza partekatzea	63- 64
4. Harrerako etxebizitza	64
6. Ordaintzera behartutakoa	64
7. Eskagarritasuna	64
8. Kudeaketa, likidazioa eta kobrantza.	64
9. Tasak eguneratzea	64

10. Hobariak	64
16. Hernaniko Udal Kiroldegiko zerbitzuak erabiltzea	65-71
1. Tarifak aplikatzeko arauak	71-72
2. Itzulketa-bajak	72
17. Potentzialki arriskutsuak diren animaliak udal erregistroan inskribatzea	73
18. Dokumentuak eta beste material batzuk	73-74
19. Sustatzaile partikularrak udalaren kartografia eguneratzeagatik	74-75

I. XEDAPEN OROKORRA

.1.artikulua

Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta bere barruan geratzen dira jasota.

2. artikulua.

Ordenantza hau Hernaniko udalerrri osoan aplikatuko da.

II. ZERGAGAIA

3. artikulua.

Tasak zergak dira eta duten zergagaia da udalaren herri jabariaren erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia, bai eta subjektu pasiboari bereziki egokitu, eragin edo onura ekartzen dioten eta udalaren eskumenekoak diren zerbitzu publikoak emateagatik edo jarduera administratiboak egiteagatik.

Nolanahi ere, tasatzat hartuko dira ondoko hauengatik Hernaniko Udalak finkatzen dituen ondarezko prestazioak:

A) Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu berezia, eta, halaber, erabilera publikoari atxikitako beste ondasun batzuen.

B) Subjektu pasiboari bereziki egokitu, eragin edo onura ekartzen dioten udalaren eskumenekoak diren eta zuzenbide publikoko erregimenean dauden zerbitzuak ematea edo jarduerak egitea; eta beti ere ondorengo zirkunstantzietako edozein gertatzen denean:

a) Zerbitzu edo jarduerak administratuek borondatez eskatzekoak edo hartzekoak ez izatea. Ondorio horietarako, ondoko kasuetan ez da borondatezkotzat joko administratuek eskatzea edo hartzea:

Lege edo erregelameduzko xedapenetan ezarria denean.

Administrazioari eskatutako ondasun, zerbitzu edo jarduerak ezinbestekoak direnean eskatzailearen bizitza pribatu edo sozialean.

b) Sektore pribatuak ez ematea edo egitea, indarrean dagoen araudiari jarraiki sektore publikoaren alde erreserbatuta egon edo ez.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.

1. Tasen subjektu pasiboak dira, zergadun diren aldetik, pertsona fisiko eta juridikoak, bai eta Zergen Foru Arau Orokorrek 35. artikuluan 3 apartatuan aipatutako entitateak, baldin eta:

a) Udalerrriaren herri jabaria bereziki gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute beren onurarako, Zergen Foru Arau Orokorrek 20.2 artikuluan jasotako kasuetako baten arabera.

b) Udalerriek eman edo egiten dituzten udal zerbitzu edo jarduerak eskatzen badituzte edo haiek onura ekarri edo eragiten badiete, Zergen Foru Arau Orokorrek 20.3 artikuluan jasotako kasuetako baten arabera.

2. Zergadunaren ordezkokoak hauek izango dira:

- a) Etxebizitza edo lokalen egoiliar edo erabiltzaileei onura dakarkien edo eragiten dieten zerbitzu edo jarduerengatik finkatutako tasetan: Ondasun higiezin horien jabeak. Horiek, bidezkoa denean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.
- b) Lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik finkatutako tasetan: Obren eraikitzaileak edo kontratistak.
- c) Suhiltzaile zerbitzuak, aurrien prebentziokoak, eraikuntza eta eraispeneoak, salbamendukoak eta, oro har, pertsona eta ondasunen babes zerbitzuak emateagatik finkatutako tasetan (zerbitzuaren mantenimendua barne): Arriskuaren aseguratzaileak diren entitate edo sozietateak.
- d) Erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia dela-eta ibilgailuak edo gurdiak espaloietan sartu edo haiek egin, mantendu, aldatu edo kentzeagatik finkatutako tasetan: Ibilgailuen sarrera horiei sarbidea ematen dieten finka eta lokalen jabeak. Horiek, bidezkoa denean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

5. artikulua.

Tasak ordaintzera behartuta daude:

- a) Partikularrek eskatuta egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, eskaera egin dutenak.
- b) Partikularrek eskatu ez arren, horien ekintzak edo ekintza-etak eragindako zerbitzu edo jardueren kasuan, ekintzaren edo ekintza-ezaren arduraduntzat jotzen direnak.

6. artikulua.

Ordenantza honetan adierazten diren zerga zorretan, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ere erantzungo dute.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZTAPENAK ETA HOBARIAK

7. Artikulua.

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan eta jarraian ezarritakoaren arabera emango dira.

1.- Xedea eta betebeharrak, epeak:

Arauketa honen xedea hau da: eranskinetan ezartzen diren tasen ordainketan aplikatuko diren albuespen eta hobariak finkatzea.

Aipatu tasentzat ezarritako albuespen eta hobarien onuradun izateko udalerrri honetan erroldatuta egon behar da onura fiskala aplikatzeko eskatu den zerbitzu publikoa hasi baino urtebete lehenago.

Horrekin batera ezin da udal ogasunean zorrik izan, onuradun izan ahal izateko.

Onura fiskala eskatzeko epea udal zerbitzuan izen-ematea edo matrikula egiteko momentua da. Dagokion zerbitzuan zehazten ez bada eperik, udal zerbitzua hasi baino lehen onura fiskala eskatu beharko da

2.- Aplikatu beharreko salbuespenak, hobariak eta murrizpenak:

A) KUOTA ORDAINTZETIK SALBUESPENAK:

Gizarte-Zerbitzuek baloratutako kasuak, ezarritako kuota ordaintzetik salbuetsita egongo dira. Horretarako, Gizarte-Zerbitzuetatik idatziz proposamena egingo da. Argudiatuko da proposamena eta salbuespena onartzeko errenta zerbitzutik oniritzia emango da.

B) HOBARIAK:

B-1) %90: araua orokorra

1. Bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerak ondorengo taula honetan jasotzen diren kopuruaren azpitik dituzten subjektu pasiboek (zergadunek) dagokion kuotaren ordainketan %90eko hobaria izango dute:

Bizikidetzaren unitateko kideak	Hileroko diru-sarrerak
1	< LGS* + %43
2	< LGS + %93
3	< LGS + %143
4	< LGS + %193
5	< LGS + %243
6	< LGS + %293

* LGS: indarrean dagoen lanbide-artearen gutxienezko soldata

Eransten doazen kide bakoitzeko %tik 50 puntu gehitzen joango da (7 kide % 343eko hobaria, etab.).

Ondare mugak kasu guztietan aztertu behar dira eta ezin dira mugak gainditu espresuki jasotako salbuespenak aplikagarriak ez badira.

Umeen kasuak, aplikatutako hobariak eragina izango du aisialdiko igerilekuan, bakarrik adintxikikoen tarifan.

B-2) Kasu bereziak:

1. %90a, bizikidetzaren unitatearen kideen diru iturriak bakarrik prestazio sozialak izan behar dira. Horretarako ekarri beharko dute:

1.1 Gizarte-Zerbitzuetatik ziurtagiria, egoera hori frogatzeko.

1.2 Errenta aitortpena ez egiteko obligazioen inguruko ziurtagiria.

Kontuan hartuko dira ondare mugak, ibilgailuak arautzen dituenak.

2. Bizikidetz-unitatearen diru-sarrerak ondorengo taula honetan jasotzen diren kopuruen azpitik dituzten subjektu pasiboek (zergadunek) dagokion kuotaren ordainketan % 50eko hobaria izango dute:

Bizikidetz-unitateko kideak	Hileroko diru-sarrerak
1	$> LGS + \%43 < LGS + \% 93$
2	$> LGS + \% 93 < LGS + \% 143$
3	$> LGS + \% 143 < LGS + \% 193$
4	$> LGS + \% 193 < LGS + \% 243$
5	$> LGS + \% 243 < LGS + \% 293$
6	$> LGS + \% 293 < LGS + \% 343$

* LGS: indarrean dagoen lanbide-arteke gutxieneko soldata

Eransten doazen kide bakoitzeko %tik 50 puntu gehitzen joango da (7 kide % 343eko hobaria, etab.).

Ondare mugak kasu guztietan aztertu behar dira eta ezin dira mugak gainditu espresuki jasotako salbuespenak aplikagarriak ez badira.

Umeen kasuak, aplikatutako hobariak eragina izango du aisialdiko igerilekuan, bakarrik adintxikikoen tarifan.

C).- Murrizpenak famili ugaria izateagatik eta eskatutako baldintzak betetzeagatik:

- 3 edota 4 seme alabak dituzten famili ugariko kide diren eskatzaileei: kuotaren %50.
- 5 edo gehiago seme-alaba gehiago dituzten famili ugariko kide diren eskatzaileei: kuotaren %75.

Familia ugariek murrizpenak izateko baldintzak:

- Elkarbizitza-unitatearen hileroko diru-sarrerak ez dira izango indarrean dagoen lanbide-arteke gutxieneko soldataren %94a baino handiagoak kide bakoitzeko.

Ondare mugak kasu guztietan aztertu behar dira eta ezin dira mugak gainditu espresuki jasotako salbuespenak aplikagarriak ez badira.

Umeen kasuak, aplikatutako hobariak eragina izango du aisialdiko igerilekuan, bakarrik adintxikikoen tarifan.

Gerta daiteke hobariaren bat eta famili ugaria izateagatik murrizpenen bat jasotzeko eskubidea aldi berean izatea. Horrela gertatzen denean, zergadunarentzat onuragarriena dena aplikatuko da.

D) Alkateak egoera bereziak hartu ahal izango dituela kontuan eta hel dakizkiokeen aparteko kasuei buruz erabaki.

Udalak erabaki dezake salbuespen eta hobari-eskaerak ez onartzea, dagokion ekitaldian diru-sarreraren, aitortutako ondarearen eta egindako gastuen artean kontraesanak daudelako.

Halaber, elkarbizitza-unitatearen errenta garbia edozein dela ere, eskatutako salbuespen edo hobariak ez ematea erabaki dezake Udalak elkarbizitza-unitateko kide kontagarri guztien ondarea dena delako, artikuluko honen 5. puntuan, ondare-mugei buruzkoan, oinarrituz.

Udalak, emandako datuak egiazkoak diren ala ez frogatzeko, egin beharreko ikerketak egin ahal izango ditu edozein unetan. Agiriren bat faltsutzen bada edo daturen bat ezkututzen bada, Alkateak erabakiko du kasu bakoitzean zer egin. Eskatutako zerbitzua emateko eskubidea galtzea ere erabaki ahal izango du, eta dagozkion legezko neurriei ekitea.

Diru-sarreraren taularen aplikazioa:

Taula hau aplikatuko da: eskaera aurkezten den momentuan indarrean dagoen lanbide-arteko gutxieneko soldatari (LGS-ri) dagokion taula; baldin eta, aurreko urteko ekitaldi fiskalaren diru-sarreraren aitortpena aurkezten bada.

Hala ez bada, hau da, aurreko bi ekitaldi fiskalen diru-sarrerak aurkezten badira, aplikatuko den taula izango da, indarrean dagoen urtearen aurreko LGSri dagokion taula

3.- Bizikidetzaren unitatearen edo elkarbizitza-unitatea: definizioa

3.1. Honako pertsonak edo pertsona-taldeak hartuko dira bizikidetzaren unitateetat:

a) Etxebizitza edo bizileku batean bakarrik bizi diren pertsonak, eta talde horretatik kanpo geratuko dira, bakarrik bizi izanda ere, haiekin ezkontza bidez edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkorra duten pertsonak, honako kasu hauetan izan ezik:

1. Banantzeko edo dibortziazko edota izatezko Bikoteen Erregistroan baja hartzeko izapide judizialak hasita daudenean.
2. Etxeko indarkeriaren biktimak direnean, banantzeko edo dibortziazko izapide judizialak hasi ez badituzte ere, betiere zirkunstantzia hori dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren aldeko gizarte-txosten bidez justifikatzen bada eta izapide horiek urtebeteko epean hasten badira, izatezko banantze-egunetik zenbatzen hasita.
3. Etorkinak direnean, eta haien ezkontidea edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkorra duen pertsona estatuko lurraldean bizi ez denean, betiere dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren aldeko gizarte-txosten bat dagoenean.

b) Etxebizitza edo bizileku berean elkarrekin bizi diren bi pertsona edo gehiago, elkarren artean ezkontzaren bidez edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkorra dutenean, edo laugarren maila-rainoko odol-ahaidetasunagatik edo bigarren mailarainoko ezkon-ahaidetasunagatik, edo familia-

harrerako harreman iraunkor batengatik edo adopzio aurreko edo tutoretzapeko harreman batengatik batuta daudenean.

3.2.- Artikulu honetako 1.b paragrafoan aurreikusitako loturetakoren bat daukaten pertsonen bizilekuan integratzen badira ere, bizikidetzaren unitate hartuko dira honako hauek:

a) Zahartzaro, baliaezintasun edo alargun pentsio kotizaziodun edo kotizaziorik gabekoen onuradunak, bai eta haien ezkontideak edo haiekin ezkontzaren antzeko harreman iraunkorra duten pertsonak, eta ekonomikoki haien mendeko diren pertsonak. Aurrekoaren ondorioetarako, lehenengoetik ekonomikoki mendekotzat hartuko dira inolako diru-baliabiderik ez duen pertsona bakar bati dagokion Gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako Oinarrizko Errentaren zenbatekoa baino diru-sarrera konputagarri handiagoak ez dituzten pertsonak, honako hauek salbuetsita: lan egiteagatik edo osagarriak izan daitezkeen pentsioetatik datozen diru-sarrerak lortzen dituzten pertsonak.

b) Etxeko tratu txarren biktima izanda, beren ohiko bizilekua utzi duten pertsonak, baita haien seme-alabak ere, izanez gero; bakarrik bizi diren pertsonen kasuan, harrera egiten duen bizikidetzaren unitate bereizitako bizikidetzaren unitate izaerarekin gehienez ere hamabi hilabetez jarraitu ahal izango da, eta ezohiko kasuetan beste hamabi hilabetez luzatu ahal izango da.

c) Beren ohiko etxebizitza utzi behar izan duten pertsonak, banantze edo dibortzio baten ondorioz edo izatezko batasun bat desegitearen ondorioz edo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak muturrekotzat jotako egoeraren baten ondorioz.

Aurrekoaren ondorioetarako, muturreko egoeratzat hartuko dira etxebizitza bat-batean galtzea etxebizitzatik kaleratzearen ondorioz, hondamendi baten ondorioz edota etxebizitzaren ordainketari aurre egiteko ezintasun nabarmenaren ondorioz, betiere egoera horiek eskatzaileari egozgarriak ez badira.

Bizikidetzaren unitate izarari gehienez ere hamabi hilabetez eutsi ahal izango zaio, eta ezohiko kasuetan beste hamabi hilabetez luzatu ahal izango da.

3.3. Udalak bizikidetzaren unitate kasu edo suposizio berriak definitu ahal izango ditu gizarte-bilakaeraren arabera, eta bereziki, familia-egiturako ereduaren bilakaeraren arabera. Zentzu horretan, baloratuko da eskaera egileen eta beraiekin bizi direnen ekonomikoki mendekotasuna eta unitate hartzailearen eta hartu dituzten pertsonen artean diru bidezko tratuerik ez dagoenean.

Pertsona bakoitzak familia unitate bakarra izango du, eta familia unitatearen kideen egoera zein den jakiteko, kontuan hartuko da urte bakoitzaren abenduaren 31ko egoera

4. Bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerak kalkulatzeko oharra:

4. 1. Kideen kopuruaren inguruan:

Aitorpen indibidualen kasuan, kalkulua bi aitorpenak batuta egingo da.

%33ko edo gehiagoko elbarritasuna duten adin txikiko kideak dituzten famili unitateei, %75eko edo gehiagoko adin nagusiko kideak dituztenei edo helbide berean mendekotasuna duen kideren bat bizitzen dutenei ezaugarri horiek dituen pertsona bakoitzarengatik kide bat gehiagori dagokion ponderazioa aplikatuko zaie.

Guraso bakarreko familien kasuan, dituzten kideak baino bat gehiago dituztela joko da.

Gurasoak dibortziatuta edo bananduta badaude, eskatzailearekin bizi ez dena ez da kide konputagarritzat joko, familiaren diru-sarreretan horren ekonomia-laguntza sartu badaiteke ere.

Ezkontza berriagatik edo izatezko bikotea eratzeagatik familiaren etxebizitzan bizi den pertsona, kide konputagarritzat joko da eta horren errenta eta ondareak familiaren errenta eta ondareekin batera zenbatuko dira.

4.2 Bizikidetzaren unitatearen diru-sarreratzat joko diren kontzeptuak:

Bizikidetzaren unitatearen diru-sarrera gisa zenbatuko dira bere kideetako edozeinek ondorengo kontzeptu hauengatik lortutakoak:

4.2.1.- Lan-etekin garbiak

Beren kabuz lanean diharduten langileen lan-etekin garbia honela aterako da: eskatzailearen diru-sarrera gordinak ken Gizarte Segurantzari ordaindutako kotizazioak eta eskubide pasibo eta derrigorrezko mutualitateengatik ordaindutako kopuruak.

4.2.2.- Ekonomi jardueren etekinak

Zuzeneko estimazioaren zerga-erregimenari atxikitako jardun enpresarialak eta profesionalak baldin badira, dagokion jarduera-eranskinean atxikitako errendimendu garbia zenbatuko da. Dena den, langile autonomoek, dagokion onura fiskalaren kalkulurako, gutxienez **22.000 euroko** diru sarrera maila aitortuko zaie.

4.2.3.- Kapital higiezinaren etekinak

Bizikidetzaren unitateak higiezinak baditu diru-sarreratzat joko da horien katastro-balioaren %2a, ondorengo higiezin hauek kenduta: ohizko etxebizitza eta norbere konturako baliabideak eragiten dituen ustiakarako erabiltzen direnak.

Nolanahi ere kontuan hartu eta zenbatuko dira landa zein hiri-ondasunen akura, eskualdaketa edo lagapenetik datozen etekin guztiak.

4.2.4.- Kapital higigarriaren etekinak

4.2.5.- Ondarezko irabazi eta galerak.

4.2.6.- Ezkontideen arteko konpentsazio-pentsioak eta mantenurako urtekoak.

4.3- Lanbide-arteko gutxieneko soldata: administrazioak urtero kontzeptu horrengatik 18 urtetik gorakoentzat ezartzen duen kopurua.

4.4- Urteko ekitaldia:

- Diru sarrera guztiak: pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitopenen azken ekitaldiari dagozkie.

- Lanbide-arteko gutxieneko soldata: indarrean dagoen ekitaldiari dagokio.

5. Ondare-mugak:

Ezingo dute artikulu honetan jasotzen diren salbuespen, hobari eta murriztapenik lortu beren ondareari buruz ondorengo arau hauek betetzen ez dituzten eskatzaileek:

- a) Ondasun Higiezinak

Bizikidetzta-unitatearen hiri-finken katastro-balioen baturak ez du gainditu behar ehun eta berrogeita hamahiru mila euroko muga (154.545,30 €).*

Familia ugarien kasuan hiri-finken katastro-balioen baturak ez du gainditu behar 169.999,83 €.* Ondare balio hau kontuan hartu behar bada bakarrik aplikatuko da artikulua honen 2.c) apartatuak ezarritako hoberia, hau da, familia ugarietzako hoberiak eta diru-sarreraren taula.

Bizikidetzta-unitateak ezin du hiri ondasun baten baino gehiagoren jabe izan (jabetza soila, gozamen-eskubidea, barne). Dena den, arau honek ondoko salbuespenak izango ditu:

1. Ondasunak badira ohiko etxebizitza eta eraikin edo etxebizitza multzo berean kokatutako garaje bat edota trasteleku bat, edo etxebizitzatik hurbil dagoen garaje edota trasteleku bakarra.

2. Ondasunak badira ohiko etxebizitza (garaje eta trasteleku bana) eta lokal komertzial bat, eta lokal honetan elkarbizitza edo familia unitatearen kideren batek bere jarduera ekonomikoa garatzen badu. Kasu honetan interesatuak behar bezala frogatu beharko du bere jarduera ekonomikoa garatzeko lokala dela. Lokala biltegia bada, interesatua langile autonomoa bada eta ekonomi jardueren gaineko zergan horrela alta emanda baldin badauka, ez da kontuan hartuko lokal hau.

3. Ondasunak bi etxebizitza badira, bata ohikoa izanda, eta besteari buruz jabetza soila edukita, eta gozamen-eskubidea indarrean badago, (gozamenduna etxebizitza honetan erroldatuta egonda ere) eta 154.545,30*€-ko muga gainditzen ez bada, edota 169.999,83*€-koa familia ugarien kasuan, ez da kontuan hartuko bigarren etxebizitza.

*zenbateko hauek eguneratuko dira urtero balio katastralen eguneraketarekin batera

Era berean, ezingo dute hoberia izateko eskubiderik eskatzaileek beti ere berain elkarbizitzaren kideren batek elkarbizitzaren ez ohiko etxebizitza jabetzan badu,. Dena den, arau honek ondoko salbuespenak izango ditu:

1. ez ohiko etxebizitza horretan gozamen-eskubidea indarrean badago, (gozamenduna etxebizitza honetan erroldatuta egonda ere). Horretarako, ekarri beharko dute etxebizitza horren inguruko eskrituren fotokopia eta Biztanleen erroldaren ziurtagiria
2. ez ohiko etxebizitza horren jabetza %100koa ez bada, beti ere etxebizitza horretan norbait erroldatuta badago eta bereganatuta badago jaraunspen baten ondorioz. Horretarako etxebizitza horren biztanleen erroldaren ziurtagiria ekarri beharko da, eskrituren fotokopiak, eta alokairuaren kontratua, erroldatuta dagoen pertsona ez bada etxebizitzaren titularra.

b) Ondare hirigarriak: ibilgailuak

b-1. Bizikidetzta-unitatearen kide bakar batek ere ezin du izan 13,99 zaldi fiskal edo gehiagoko potentzia duen trakzio mekanikoko ibilgailu baten jabe.

Hauek ez dira kontuan hartuko:

- 1.- Lanerako behar-beharrezkoak diren ibilgailuak. Kasu horietan, hala dela egiaztatzen duen agiria aurkeztu behar da.
- 2.- %65eko edo gehiagoko elbarritasun maila duten pertsonen gidatzeko egokitutako ibilgailuak, elbarriarenak berarenak baldin badira.

3.- Aulki gurpilduneko elbarritasuna duten pertsonak eramateko erabiltzen diren ibilgailuak, zuzenean edo egokitu ondoren.

4.- 8 urte edo gehiagoko turismoak. Kontuan hartuko da lehenengo matrikulazioaren data.

b-2.- Dena den, bizikide-unitateak ezin du ibilgailu baten baino gehiagoren jabe izan, aurreko idatz zatian sartutakoak barne. Hala ere, ez dira kontuan hartuko kamioiak, (ezta bidaiariak eramane ezin dituzten lanerako ibilgailuak ere) traktoreak, trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdi-atoiak, eta autobusak.

c) Ondare-osagaien pilaketa

Bizikide-unitateak aurreko ataletan azaldutako ondare-osagai horietatik hainbat dituzenean, dagokion mugarekiko ondare-osagai bakoitzaren balioak hartzen duen ehunekoa kalkulatu da. Horrenbestez, eskatutako salbuespen, hobari edo murriztapena ez da emango ehuneko horien batura ehun baino gehiago denean.

d) Merkataritza-, industria- eta lanbide-jarduerak

Era berean ez da eskaera hori onartuko bizikide-unitateko kide kontagarriren bat edozein jarduera ekonomikoren jabe izaki, dagokion ekitaldian aipatu jarduerari egotzitako fakturazio-bolumenak ehun eta berrogeita hamabost mila euroko muga (150.000 €) gainditzen duenean.

e) Ondare mugak ez aplikatzeko salbuespenak:

Ezarritako ondare mugak ez dira aplikatuko bizikidetza-unitatearen lan egiteko adineko kide guztiak langabezian badaude, betiere baldintza hauek betetzen badira:

1. Bizikidetza-unitatearen kide guztien langabezi egoera zerbitzua eskatzen den baino aurreko urtetik aurrera izan behar da, eta eskaera egiten duten momentuan eta hobaria duten bitartean langabezian jarraitu behar dute.

2. Bizikidetza-unitatearen kide guztiek ez dute errenta aitortpena egiteko obligazioa izan behar.

3. Bizikidetza-unitatearen kide guztien ondasun higiezinak bakarrik ohiko etxebizitza, garaje eta trastelekua jabetzan izan behar dute.

4. Bizikidetza-unitatearen ibilgailuen inguruan:

a) potentzia ez da kontuan hartuko betiere ibilgailua erosita bada langabezian geratu baino lehen.

b) bi ibilgailuak ez dira kontuan hartuko ibilgailuen titularrak edota familiako gidariak, biak langabezian geratu badira. Ekarri beharko dute gidatzeko baimena eta ibilgailuen aseguruaren poliza frogatzeko ibilgailu bakoitzak gidari bat daukala.

Gehienez urte batean aplikatuko da salbuespena bizikidetza-unitatea bakoitzari.

6.- Aurkeztu beharreko agiriak

- Eskaera-orria beteta bizikidetza-unitateko **kide guztien** diru-sarreraren eta ondasunen zinpeko aitortpena.
- Bizikidetza-unitatearen **kide guztien** diru-sarrera ororen frogagiriak:

- Azken ekitaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga-aitorpenaren fotokopia eta aitorpenik egin beharrik ez badu, hori horrela dela adierazten duen Foru Ogasunaren ziurtagiria (aitorpena egiteko obligazio ezaren ziurtagiria).
- Errenta-aitorpena egin beharrik ez badu, enpresaren ziurtagiria (10-T), edota langabeziagatik edo beste kontzeptu batzuegatik jasotzen dituen prestazioen ziurtagiriak. Kasu hauetan, beti INSSek emandako bizitza laboralaren inguruko ziurtagiria
- Ekonomi jardueretatik datozen diru-sarreraren kasuan, errenta-aitorpenarekin batera dagokion eranskina aurkeztu beharko du, jarduera-etekinak zehazten dituen, eta ondare-eranskina ere bai
- Laneko ibilgailuen kasuan, ibilgailuaren fitxa teknikaren fotokopia ekarri behar da eta eskaera egilearen IAE.
- Interesgarritzat jotako beste edozein agiri

8. artikulua.

Oinarri ezargarri zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitzak eratzten du, eranskinean jasotakoaren arabera.

VI. KUOTA

9. artikulua.

Zerga kuota honelakoa izango da, eranskinean xedatutakoaren arabera:

- a) Tarifa bat jarriz ateratzen den kopurua.
- b) Horretarako jarritako kopuru finkoa.
- c) Bi prozedurak batera erabiliz ateratzen den kopurua.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

10. artikulua.

1.- Tasak kasu hauetan sortu ahal izango dira beren zergagaiaren izaeraren arabera eta ordenantza fiskalean jasotakoari jarraiki:

- a) Zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten denean, nahiz eta bi kasutan zenbatekoa osorik edo zati batean aurrez gordailatzea exiji daitekeen.
- b) Jarduketa edo espedienteari hasiera ematen dion eskaera aurkezten denean. Hura egin edo tramitatu aurretik behar den kopurua ordainduko da.

2. Tasaren izaera materialak aldizkako sortzapena exijitzen duenean, eta ordenantza fiskalak hala jasotzen duenean, sortzapena urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean gertatuko da eta zergaldiak urte naturala hartuko du, salbu zerbitzu edo jardueraren erabilera hasi edo amaitzen bada. Azken kasu horretan zergaldia zirkunstantzia horretara egokituko da kuota hainbanatuz, ordenantza fiskalean jasotakoaren arabera.

3. Subjektu pasiboari leporatu ezin zaizkion arrazoiengatik zerbitzu publikoa, jarduera administratiboa eman edo egiten ez denean, zenbatekoa itzuli beharko zaio.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

11. artikulua.

Hernaniko Udalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da eranskinak exakzio bakoitzeko ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

Subjektu pasiboak ordainketa geroratu edo zatikatzeko eskaera borondatezko epean aurkeztu badu eta Udalak onartu badio ez da berandutza interesik exijituko. Onura hori lortzeko beharrezkoa izango da ordainketa zerga sortu den ekitaldian egitea.

IX. TASEN KUDEAKETA

12. artikulua.

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatzeari, biltzeari eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

X. AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau, eta bere Eranskinak, bertan adierazten den egunean onartu ziren behin betikoz, 2017ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

ERANSKINA

1.- AUTO-TAXI ETA GAINERAKO AKURA-IBILGAILUEN LIZENTZIA ETA BAIMEN ADMINISTRATIBOAK EMATEA

Kontzeptua	Euro
Auto-taxietarako lehen lizentzia	507,95
Auto-turismoen lehen lizentziak	507,95
Abonu eta zerbitzu berezi eta abonuetarako lehen lizentziak	507,95
Eman diren eta indarrean dirauten lizentzien transmisioak plaza kopurua berezi gabe	4.080,40
Emandako lizentzia duten ibilgailuen ordezkapena	40,80
Ibilgailuen urteroko berrikustapenak	20,40
Gidari baimenak luzatzea	20,40

Tarifa aplikatzeko arauak:

- 1.-Auto-taxitzat honako hau ulertzen da: gidariarekin alokatzen den ibilgailu arina, taximetro bidez neurtzen den zerbitzua ematen duena, normalean herri barruan.
- 2.-Auto-turismotzat honako hau ulertzen da: gidariarekin alokatzen den ibilgailu arina, taximetrorik gabekoa eta zerbitzua herri barruan nahiz herritik kanpo ematen duena.
- 3.-Zerbitzu berezietako eta ordainketako ibilgailuak honako hauek dira: luxu eta potentzia ezaugarri jakin batzuk dituztenak edo ezagupen bereziak dituzten gidariak gidatzen dituztenak, zeremonietarako, jarraian erabiltzeko ordainketa-erregimenean, edo bestelako zerbitzu berezietan.
- 4.- Tasa honetatik libre gelditzen dira gidaririk gabe alokatzen diren ibilgailuak eta udalaren erabakiz egin beharreko ibilgailuen errebisioak, urteroko ezinbesteko errebisioak kenduta.
- 5.- Tasa auto-kitapen erregimenean kudeatuko da; eta horren ordainketa, Udalak baimena eman aurretik, justifikatu beharko da.
- 6.-Tasaren kuotaren gaineko %100eko hobaria emango da, lizentziaren ibilgailua gurpil aulkia behar duten pertsona desgaituak eramateko egokituta badago lizentzia emateko unean.

ERANSKINA

2.- HIRIGINTZAKO LIZENTZIAK EMATEA

Kontzeptua	Euro
Obrak egiteko lizentziak	
600 € eta 12.000 € bitarteko aurrekontua duten obretarako lizentziak	72,10
12.001 € eta 30.000 € bitarteko aurrekontua duten obretarako lizentziak	264,30
30.001 € eta 100.000 € bitarteko aurrekontua duten obretarako lizentziak	726,70
100.001 € 500.000 € bitarteko aurrekontua duten obretarako lizentzia	1.511,00
500.001 €-tik gorako aurrekontua duten obretarako lizentziak	3.020,00
Lehen erabilerako lizentziak:	
Etxebizitza bakoitzeko	75,00
Merkataritza lokalak: eraikitako m ² bakoitzeko	1,30
Hirugarren sektoreko erabilerako lokalak: eraikitako m ² bakoitzeko	0,80
Garaje plaza bakoitzeko	0,00
500 m ² edo gutxiagoko azalera duten industria bakoitzeko	377,75

500 m ² -tik gorako azalera duten industria bakoitzeko	755,50
Lerrokadurak, fatxadako metro lineal bakoitzeko	8,55
Aurreko lizentziak luzatzea edo eskualdatzea, kuota likidoaren kopuruaren ehunekoaren arabera	30%
Lurzatiketa/banatzea	225,25
Merkataritzarako lokala etxebizitza izatera aldatzeagatik edo alderantziz eskuratu beharreko lizentzia	225,25
Lur mugimenduak egiteko lizentzia	493,20

1. Ez dute tasa ordaindu beharrik izango udalerriko etxeetan gas sareari lotzeko egiten diren lanetarako baimenek, salbu eta berritik eraikitzen diren etxeetan egiten direnek.
2. Ez dute tasa ordaindu beharrik izango Mankomunitateak eta Udalerrri-Taldeak jabe diren edozein eraikuntzak, instalazioak eta obrak egiteak, betiere entitate horietan Hernaniko Udala barruan egonez gero.
3. Ez dute tasa ordaindu beharrik izango Eusko Jaurlaritzak Herri ikastetxeetan egin beharreko obrek, betiere obra bukatu ondoren Udalari eraikinaren mantentze-lanak egitea badagokio.
4. Bereziki hartuko dira kontuan eta, hortaz, zerga ordaintzetik salbuetsita gera daitezke ezbehar batek eragindako eraikuntzen birgaikuntza edo berreraikuntza lanak, subjektu pasiboak aldeztatik eskakizuna behar bezala justifikaturik aurkezten badu eta Ogasun eta Ondarea – Kontuetarako Batzorde Bereziko Batzordeak aldeko irizpena ematen badu.
5. Tasaren 100eko 90eko hoberia izango dute:
 1. Babes ofizialeko etxeak eraikitzeko obra baimenek.
 2. Eusko Jaurlaritzan dauden Berregokitze Babesturiko egitasmoen barruan dauden etxebizitza edota lokalek %90aren bonifikazioa izango dute ordaindu behar den kuotan
 3. Jabekideen elkarrekin egindako diruz lagundutako obrak, betiere obra horiek egiten badira jabari publikotik jendea bizi den eraikinetara joateko traba arkitektonikoak kentzeko, igogailu baten bidez, edota gurpil-aulkia beharrezkoa dutenentzat jasotzaile baten bidez.
 4. interes bereziko obrek edo udal onurakoak izendatuta daudenean arrazoi sozial, kultural edo historiko-artistikoengatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.
 5. Aurreko idatz zatian arautuetako hoberi fiskalen onuradun izan ahal izateko ezin da udal ogasunean zorrik izan. Espediente bakar batean pertsona bat baino gehiago baldin badago

inplikaturik eta horietakoren batek udal ogasunean zorrik baldin badu, hobari fiskala kalkulatzeko zordunari dagokin ehuneko deskontatuko da. Aldez aurretik interesatu guztiei 10 eguneko entzunaldia emango zaie.

Epe horretan, dauden zorren espedienteak ebatzi beharko da

6. Orokorrean, onura fiskal guztiak espresuki eta idatziz eskatu behar dira. Horrela, interesatuek eskaera egin beharko dute eraikitze baimena jakinarazten zaion ondorengo 2 hileko epean, betiere eskatutako onura fiskalak ez badu epe zehatza. Eskaerarekin batera, alegatutako onura fiskala emateko zioaren frogagiria eman behar da

Tarifa aplikatzeko arauak:

1. Baimen bat lortu nahi duten pertsonak eskaera aurkeztu beharko dute eta eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu: egin nahi diren lanen edo instalazioen izaera, zabalera eta nondik norakoak, lana non egitekoa den, lanaren kostu errearen aurrekontuaren bi ale, lanen arduradunak nahiz teknikari gaituak izenpetua eta, oro har, exakzioa zehazki aplikatzeko jakingarria den informazio guztia.
2. Eskabidea interesatuak berak nahiz lanen kontratistak egin ahal izango du, baina honako datu hauek agertu beharko dira: higiezinaren jabearen izena eta helbidea, maizter edo errentariarena, lanak berak ordainduta eta berak nahi duelako egiten badira, eta etxeko jabea lanak egitearekin ados dagoela eta lanak egiteko baimena ematen duela adierazten duela.
3. Planta berriko lanak egiteko eskabideak, dauden eraikinen zaharberitze-lanak egiteko eskabideak eta, oro har, udal honetako hirigintza-arau aplikagarrietan hala egin dadila ezartzen den lanetarako eskabideak, lanen egileak eta lanen teknikari zuzendariak izenpetu beharko dituzte. Eta eskabidearekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira: planoak, proiektuak, memoriak eta aurrekontuak, lanen edo instalazioen teknikari zuzendariaren kolegio ofizialak bisatuak, eta ale kopurua, Eraikuntza-Ordenantzan ezarritako formaltasunekin.
4. Planta berriko eraikuntzak egiteko baimen eskaeran honako hau agertu beharko da: orubea erabat libre dagoela eta ez dagoela eraikitzeko trabarik egiten duen inolako eraikinik. Hala ez bada, dagoen eraikina botatzeko baimena eskatu beharko da aldez aurretik edo aldi berean.
5. Era berean, planta berriko eraikinak egiteko baimena eskatu aurretik, lerrokadura eta sestren mugapenerako baimena eskatu beharko da, Plangintza Orokorreko hirigintza arauetan ezarritako moduan.
6. Baimen eskaera egin ondoren proiektua aldatu edo handitu egiten bada, horren berri eman beharko zaio udalari, eta aurrekontu berria edo aldatua, eta, hala badagokio, aldatetaren edo handitze-lanen planoak eta memoria bidali beharko zaizkio.
7. Udalak, bere teknikari eta agenteen bidez, lanak zaindu, fiskalizatu eta ikuskatu egingo ditu.
8. Tasa autokitapen erregimenean kudeatuko da; eta horren ordainketa, Udalak baimena eman aurretik, justifikatu beharko da.

ERANSKINA

3. HIRIGINTZA GAJETAN LIZENTZIAK, BAIMENAK ETA ESPEDIENTEAK LUZATU ETA EMATEA

Kasu bakoitzean aplikatu beharreko tarifa ondorengo zerrendan azaltzen dena izango da:

Kontzeptu	Euro
Hirigintza kuotak kobratzea	2.120,00
Konpentsazio Batzordearen aldeko desjabetze espedientea	1.928,90
Udalari urbanizazioa lagatzea	6.270,80
Aurri espedientea	1.368,95
Planeamenduko elementuen aldaketa: Ogasun eta Ondare batzordeak kasu bakoitza aztertuko du, administrazio kostuaren balorazioaren txostena egin ondoren	

Tarifa aplikatzeko arauak:

1. Tarifan jasotako jardueraren batengatik udalak egindako ekintzak dira zergagaia.
2. Tarifan sartzen den kontzeptu bakoitza zer den ongi zehazteko eta interesatuek egin beharreko tramiteak zein diren zehazteko, indarrean dagoen araudian ezarritakoa hartuko da kontuan.
3. Tasa autolikidazioa erregimenean kudeatuko da.
4. Argitaratu beharreko iragarkien gastuak interesatuek ordainduko dituzte.

ERANSKINA

4. ESTABLEZIMENDUAK IREKITZEKO ETA INSTALAZIOAK EZARRI EDO ALDATZEKO LIZENTZIAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra aldatzen duen 7/2012 barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Legearen VIII kapituluak dioenaren arabera.

Kontzeptua	Euro
------------	------

1. Saillkatutako jarduerak: I motatakoak

A) Jarduera berriaren lizentzia	
1. Merkataritza eta zerbitzuetako lokalak	664,90
2. Nekazaritzako jarduerak	632,90

3. Abeltzaintzako jarduerak	632,90
4. Industri jardueretarako lokalak	870,15
B) Jarduera legeztatzea, handitu edo aldatzea	
Instalazioak legeztatzea, jartzea edo aldatzea (ur biltegiak, haize egokitua, etab.)	664,90
C) Lokalen eskualdaketak edo titular aldaketak,	
Jarduera berari eusten bazaio eta jarduera eta irekiera lizentziak indarrean dagoen legediaren arabera baldin badaude(martxan jarri aurreko komunikazioa eta aurkeztu beharreko dokumentu guztiak Udaletxean aurkeztuak badaude)	
Lizentzian aldaketaren gai den jarduerari dagokion kopurua	%50

2. Sailkatutako jarduerak: II motakoak

A) Jarduera berriaren lizentzia	Euro
1. Merkataritza eta zerbitzuetako lokalak	387,05
2. Nekazaritzako jarduerak	368,05
3. Abeltzaintzako jarduerak	368,85
4. Ostalaritza	664,90
5. Finantza erakundeen lokalak	870,15
6. Industri jardueretarako lokalak	664,90
7. Garaje jardueretarako lokalak (garaje plaza bakoitzeko)	24,15
B) Jarduera legeztatzea, handitu edo aldatzea	368,85
C). Lokalen eskualdaketak edo titular aldaketak,	
jarduera berari eusten bazaio eta jarduera eta irekiera lizentziak indarrean dagoen legediaren arabera baldin badauzkate	
Lizentzian aldaketaren gai den jarduerari dagokion kopurua	

	%50
--	-----

3- Sailkatu gabeko jarduera

KONTZEPTUA	Euro
A) Jarduera berria	387,05
b- Lokalen eskualdaketak edo titular aldaketak, jarduera berari eusten bazaio eta aurreko komunikazioa ondo eginga bada eta aurkeztu beharreko dokumentu guztiak Udaletxean aurkeztuak badaude:	
Lizentzian aldaketaren gai den jarduerari dagokion kopurua	%50

Tarifa aplikatzeko arauak:

1.- Negoziotarako lokal bat irekitzea honako honi deituko zaio:

- a) Lehen establezimenduak irekitzeari.
- b) Lokalak lekuz aldatzeari.
- c) Lokaletan egiten diren jarduerak aldatu edo handitzeari, nahiz eta titular berak jarraitu.
- d) Lokalak eskualdatzeari.

2.- Hau ulertuko da negozioetarako lokal gisa:

- a) Bere ohiko jarduera merkataritza duen establezimendua. Eta jarduera bat ohikotzat joko dugu baldin eta Merkataritza Kodearen 3. atalean azaltzen bada edo egiten den jardueraren trafikoaren gai diren egintza edo kontratuak egiteko industri zerga ordaindu behar bada.
- b) Establezimendu ireki batean industri jarduera, merkataritza jarduera edo hezkuntza jardueraren bat egiteko den lokala.
- c) Bizitzeko egokia izan arren bere erabilera nagusia bizitzekoa ez den eraikina, jendearentzako irekia egon ala ez eta, bereziki, honako lokal hauek:
 - Beren kide edo bazkideen aisialdirako-kasino edo zirkuluak.

-Idatzati honen aurreko puntuan adierazitako lokalen esparruen barruan kasinoaren edo zirkuluaren titularra ez den pertsonak merkataritza edo industria ustiapenatarako erabiltzen diren lekuak, dela alokairuan, lagapenean edo bestelako titulupean.

-Industriara nahiz edozein mota edo izaerako negozioetara dedikatzen direnak.

-Jarduera ekonomikoetara dedikatzen direnak.

-Ikuskizun publikoak.

-Gordetegi edo biltegiak.

-Idaztegi, bulego edo estudioak, leku horietan merkataritza edo industria jarduerak egiten badira.

3.- Indarrean dauden baimenen araberako irekitze baimenik ez duten lokalak eskualdatzeko kasuetan, baimen berria eskatu beharko da eta horri dagozkion tasak ordaindu.

4.- Behin-behineko irekiera gisa hartuko dira, eta horren ondorioz hobariak izango dituzte:

a) Establezimenduak irekitzeko baimenak, baimena behar duen lokalean jardueraren iraupen aldia urtebetetik gorakoa denean, baina hiru urte gainditu gabe: %20ko hobaria tasaren zenbatekoan.

b) Establezimenduak irekitzeko baimenak baimena behar duen lokalean jardueraren iraupen aldia urtebetetik gorakoa ez denean %50eko hobaria izango da.

Kasu hauetan, interesatuak Udalari idatziz jakinarazi beharko dio jardueraren amaiera, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren bajaren kopia erantsiko du, jardueraren amaieratik urtebeteko epean.

Tasa exekutibo epean ordaindu den kasuetan, hobaria zorraren kopuru nagusiari bakarrik aplikatuko zaio.

ERANSKINA

5.- SU ITZALKETA ETA HERRI BABESERAKO ZERBITZUAK:

Kontzeptua	Euro
Zerbitzu arduraduna, orduko	42,00
Zerbitzuko kideak, orduko	36,70
Motobonba, orduko	80,70
Mahukak, metroko	10,40
Edapen handiko aparra isurtzea, erabilitako 20 kiloko bidoi bakoitzeko	229,00
Ibilgailua, orduko	12,15

Motozerra, orduko	4,20
Tresneria elektrogenoa, orduko	8,15
Eskailerak, erremintak, sokak eta abar, orduko	4,00

Tarifa aplikatzeko arauak:

1.- Sua har dezaketen gai edo produktuekin lan egin behar bada edo sua har dezaketen edo arriskutsuak diren produktuak garraiatzen dituzten ibilgailuekin ibili behar bada, aurreko tarifa guztiak %100 igoko dira, lan horiek oso arriskutsuak direlako.

2.- Udalerritik kanpo egiten diren esku hartzeen tarifak lehen aipatutakoak baino %50 altuagoak izango dira.

3.- Udalerrri barruan egiten diren zerbitzuak ordu erdika zatituta tarifatu ahal izango dira.

4.- Ezbeharra udalerrri barruan izan dutenek fakturazioaren %20ko beherapena izan dezakete, baldin eta suteetarako aseguru poliza baldin badaukate eta kontratatutako aseguruaren zenbatekoa jabeagoaren balio errealarekin egokitzen dela frogatzen badute.

6. ERANSKINA: UDAL HILERRIAN ZERBITZUAK ETA EMAKIDAK GAUZATZEA.

ZERBITZU BAKANAK

1) Ehorzketa- eta desehorzketa-zerbitzuak eta horma-hilobien emakida

Kontzeptua	Euro
a) Ehorzketak horma-hilobian edo panteoian	71,50
c) Desehorzketak	71,50
d) Horma-hilobien emakida, 10 urte arte	408,55
e) Kolumbarioren emakidea 10 urte arte	196,15
f) 6 gizakiren gorpuentzat, horma-hilobi komun hileta-eskubidea ematea:	
-5 urte arte	85,20
-10 urte arte	135,65
Gehi hilarria,bakoitza	51,80
g) Ustelgabeko gorpuak: luzapena 5 urte	141,40

--	--

2) Gorpuen lekualdaketa

Kontzeptua	Euro
a) lekualdatzea	141,20
b) gorpuzkinetarako kaxa	64,65

3) Panteoietan barruko garbiketa, eta panteoietan edo hilobietan gorpuzkiak berriro kokatzea (hilobi bakar bat izanez gero eta lekualdaketarik ez bada)

Kontzeptua	Euro
a) gorpuzkin bat	84,05
b) 2 gorpuzkin	112,10
c) 3tik 10 gorpuzkin arte	149,50
d) 10 gorpuzkin baino gehiago	186,85

4) Gorpua gorputegian uzteagatik, egun bakoitzeko edo egun bat baino denbora gutxiagoko

Kontzeptua	Euro
Kuota	42,10

5) Hileta eskubideak eskualdatzea

Kontzeptua	Euro
3.1 Panteoi-eskubideak inter vivos eta mortis causa eskualdatzea	
Gurasoak (1. gradua)	
hobi bakarra	169,35
hobi hirukoitza	338,65

hobi handiagoak	508,05
Aitona-amonak/bilobak /anai-arrebak (2. gradua)	
hobi bakarra	338,65
hobi hirukoitza	672,20
hobi handiagoak	949,25
Aitona-amonak/birbilobak eta beste ahaidetasun batzuk	
hobi bakarra	949,25
hobi hirukoitza	1.575,25
hobi handiagoak	2.627,10
3.2 Bestelako eskualdaketak (horma-hilobiak)	196,45

6) Kapera/tenplu/espazio egokitua zeremonia partikularra egiteko erabiltzea

Kontzeptua	Euro
Zeremonia bakoitza	63,65

7) Lan administratiboa

Kontzeptua	Euro
a) Ziurtagiriak	6,30
b) Tituluaren kopia	6,30

URTEKO ZERBITZUAK

- 1.) Hilerria mantendu, zaindu eta garbitzeagatik

Kontzeptua	Euro
1. Panteoi-emakida bakoitzagatik, urteko	
hobi bakarra	21,00
hobi hirukoitza	31,60
hobi handiagoak	52,50
2. Horma-hilobi edo lurreko hilobiren emakida bakoitzak, urteko	15,75
3.-Hezurtegi edo kolunbarioaren emakida bakoitzak, urteko	7,40

Hilobiei uko egitea

1 urte	%5
2 urte	%10
3 urte	%15
4 urte	%20
5 urte	%25
6 urte	%30
7 urte	%35
8 urte	%40
9 urte	%45
10 urte	%50

Tarifak aplikatzeko arauak:

1.- Zergaia: ematen diren honelako zerbitzuengatik ordaindu beharko dira hemen araututako tasak:

1.-Gorpuak lurperatu eta lurpetik ateratzeagatik.

- 2.- Gorpuak lekuz aldatu eta txikitzeagatik.
- 3.- Gorpuak gorputegian uzteagatik.
- 4.- Hilerria kontserbatu, zaindu eta garbitzeagatik.
- 5.- Hilobiak erabiltzeko eskubideak eman, eta eskuz aldatzeagatik.

6.-Hilobietan, kaperetan, e.a. lanak egiteko baimena eskuratzegatik.

2.-Noiz sortzen da tasa ordaindu beharra:

Zerbitzua ematen denean sortzen da tasa ordaindu beharra. Honelakoetan joko da zerbitzua ematen hasita dagoela:

1. Gorpuak lurperatu, lekuz aldatu, txikitu edo gorputegian uzteko zerbitzua jasotzeko eskabidea egitean.

2. Hilobia erabiltzeko eskubideak edo obrak egiteko lizentzia ematean.

3. Hilerririk kontserbatu eta garbitzeko zerbitzua ematen denean.

3.- Zergapekoa: tasa honako hauek ordaindu behar dute, zergapekoak dira eta: pertsona fisiko eta juridikoek, oinordekotza banatugabeek, ondasunen elkarrekin eta, zuzenbide nortasunik izan gabe, unitate ekonomikoa diren edo zergagai den aparteko ondarea duten bestelako entitateek, baldin eta:

1.- Zerbitzuak nahiz ehorzketa eskubideak edo lizentziak eskatzen badituzte.

2.- Kaperak, kripta eta hilobiak erabiltzeko eskubidearen titular izateagatik, hilerririk kontserbatu, zaindu, garbitu eta apaintzeko zerbitzuetatik nolabaiteko onura ateratzen badute.

4.-Salbuespenak

1. Ongintzako edo gizarte laguntzako erroldan jasotako gorpuak, behartsuenak eta ongintza etxeetan bizi zirenenak lurperatu eta lurpetik ateratzeko zerbitzuak.

2.Epaileek agindutako zerbitzuak.

3. Udalak albuespen gisa ordaindu behar dituenak. Hauek dira albuespenak: hildako pertsonak hurbileko senide ezagunak ez izatea. Kasu horietan udalak ordainduko ditu udal hilerriko zerbitzuak, indarrean dagoen legeriak gorpuzkinak hezurtegi komunera eramateko ezarritako epea bukatzen den arte, hala badagokio.

5.- Ordaintzeko modua.

5.1 Zerbitzu bakanak :

1.- Ehorztetxeak behartuta daude eskatzen diren zerbitzuei dagozkien eskubideak aldeztetik ordaintzera, Ordaintzeta Udal Bilketa Bulegoan egin behar da.

2.-Hilerriko arduradunak zerbitzua emateko baimena ematen duen dekretua eskatuko die ehorztetxeei zerbitzua eman aurretik

5.2. Urteko zerbitzuak:

- 1.-Tasa ez da hainbanatuko.
2. Emakidaren urtean tasa bere osotasunean ordainduko da, autolikidazioaren bidez, eskatzen diren zerbitzuei dagozkien eskubideak aldeztuz aurretik ordaintzen diren momentuan.
- 3.Emakidaren amaiera urteak ez du tasarik sortuko.
- 4.Hilobi-emakidak dirauen bitartean hilerria mantentzeko Zerbitzuaren tasa ordaindu behar da (urte horiei dagokiena). Interesdunak ordainketa hori emakida egiten den unean bertan edo honek dirauen bitartean egin ahal izango du.
- 5.Tasa hau aldizkakoa da, eta zergaldiak urte naturala hartzen du.
- 6.-Hilerriak kontserbatu, zaindu eta garbitzeko zerbitzua, errolda baten bidez kudeatzen den aldizkako zerbitzua izanik, urtean behin ordainduko da banku-helbideratzearen bidez, errolda jendaurrean erakustean adieraziko den modu eta lehenengo hiruhilabeteko epean.

ERANSKINA

7. SANEAMENDUKO ZERBITZUA.

Estolderia zerbitzuarengatik ordaindu beharreko diru kopurua ur kontsumoagatik ordaindu beharreko zenbatekoaren %80koa izango da (zergak sartu gabe).

8.HONDAKINEN BILKETA.

Bilketa motak:

A) EREMU ERRESIDENTZIALA eta LANDALURRA:

ETXEBIZITZAK			
Zerbitzua	Asteko zerbitzua	Tarifa koefizientea	2018 €/hiruhileko TARIFA
Hiriguneko etxebizitzak	7	1,00	26,00
Hiriguneko etxebizitzak, konposta eginez gero	4	0,75	19,50
Landa eremuko etxebizitzak	7	0,85	22,10
Landa eremuko etxebizitzak, konposta eginez gero	4	0,57	14,80

MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUAK**

Zerbitzua	€/hiruhileko
Jarduerarik gabeko lokala	19,50
Sortzaile txikiak (gurpilik gabeko ontziak dituena)	31,15
Sortzaile ertainak (organikorako 10 l + beste hondakinentzat gurpildun ontziren bat dituena)	86,15
Sortzaile handiak (gurpildun ontziak dituena) material birziklagarria nahastua ez badago	112,00
Sortzaile handiak (gurpildun ontziak dituena) material birziklagarria nahastua badago	187,40
Sagardotegiak	112,70

** landalur eremuan garatzen diren jarduerari aplikatuko diren koefiziente murriztaileak -bilketa motaren arabera-

Hondakinen bilketa zerbitzua jardueraren lokaleraino ailegatzen ez bada	0,85
Landa eremuko jardueretan, konposta eginez gero	0,57

JARDUERA IBILTARIENTZAT		
Eguneko zerbitzua		13,20
Kontuan hartuko da zenbateko finko bat eta eguneko zenbatekoa	Kuota finkoa €	kuota aldagaia (€/eguneko)
Sortzaile txikia	23,10	1
Sortzaile handia	46,30	2

Eremu erresidentzian eta landalurrean tarifak aplikatzeko arauak:

1.-Etxebizitza edo merkataritza nahiz industria arloko lokal bereizi bakoitza hartuko da salbuespen honetarako oinarri gisa, zerbitzua eskaintzen duen inguru edo kaleetan.

Etxebizitza berezizat hartuko da, erregistro-finka bakar gisa ageri dena, edo erregistro-finka bat baino gehiago izanez gero, horiek jabe berarenak baldin badira eta Biztanleen Erroldan etxebizitza bakar gisa onarturik datorrena.

Merkataritza edo industria arloko lokal berezizat hartuko da:

- a) Erregistro-finka bakar gisa eta fisikoki lokal bakar gisa ageri dena, betiere bertan ekonomia-jarduera bakar garatzen denean, edo hala egokituz gero, irekiera-lizentzia beraren menpe eta titular beraren menpe dauden zenbait jarduera daudenean.
- b) Erregistro-finka bakar gisa ageri baina fisikoki zenbait lokaletan berezia dagoena. Kasu honetan, dauden merkataritza-lokalak adina tarifei emango zaie alta, jabea bera den edo ez den kontuan izan gabe.
- c) Erregistro-finka bat baino gehiago bezala baina fisikoki lokal bakar gisa ageri dena, jabe bakarra eta jarduera bat edo gehiago dituen, guztiak ere irekiera-lizentzia beraren menpe eta titular bakarrekin.

2.-Etxebizitza edo lokal horiek okupatu gabe badaude ere, tasa ordaindu egin beharko da. Lokal kasuetan ordaindu beharreko gutxieneko kuota hiriguneko etxebizitzaren kuota izango da.

Gutxieneko kuota aplikatze aldera, interesatuak eskaera bat aurkeztu beharko du idatziz eta, horrekin batera, jarduera ekonomikoen gaineko zergan, dagokion jarduera ekonomikoaren epigrafean, baja emateari dagokion 840 zenbakiko inprimakiaren fotokopia.

Eskaerak aurkeztu eta hurrengo urtetik aurrera izango du ondorioa, salbu eta jarduera ekonomikoaren baja aurreko urteko abendukoa baldin bada. Ez du inola ere atzera eraginik izango.

3.-Arau horretatik salbuetsita daude eraikuntza berriko eraikinetako lokal zatitu gabeak eta lehen aldiz okupatu gabeak.

4.-Tasak hiruhilabeteko lehen egunetik aurrera izango du eragina eta kuota ezin da zatitu hiruhilabeteko epealdia. Dena den, tasa horren ondorioetarako alta diren eta ekonomi ekitaldiaren barruan eraikitako etxe eta lokal berrien kasuan, tasak eragina izango du udalak etxe eta lokal horiei lehen erabilerarako baimena ematen dien egunetik aurrera. Kasu horietan tasa zuzenean kitatuko da eta altaren berri jasoko da, hurrengo urteko erroldan sartzeko.

5.- e) f) eta g) tarifari aplikatuko zaio %30eko hobaria baldin eta lokal hauen jabeak poltsa berrerabilgarrien kanpaina parte hartzen badute. Agenda 21 teknikariak txostena egingo du hobaria aplikatu ahal izateko.

6.- Autokonposta: Pertsona batek bere jabetasuneko etxebizitza batean auto-konposta tarifa alta emanda badauka, eta Hernanin bigarren etxebizitza badauka, auto-konpostaren tarifa ere aplikatuko da bigarren etxebizitza honetan. Betiere frogatzen badu (eta atez ateko zerbitzuak baieztatzen badu) hondakin organikoak ez direla biltzen pertsona horrek duen bigarren etxebizitzan.

7.- Sagardotegiaren inguruan sagardotegia kokatuta dagoen eraikinean etxebizitza ere badago, etxebizitzak bere tarifa propio izango du eta ez da sagardotegiaren tarifarekin konpentsatuko du. Bi zerbitzu desberdinak dira.

8.- Jarduera ibiltarientzat onartutako tarifak auto-likidazioen bidez ordainduko dira, bide publikoa okupatzeagatiko lizentzia emakidarekin batera. Horretarako, Ingurumen eta Errenta Zerbitzuak elkar lanak egingo dituzte tasa hau gehi bide okupazioaren tasa biak batera ordaintzeko.

A) EREMU INDUSTRIAL

I- ERANSKINA.- Hondakinen bilketa zerbitzua Industri, lantegi eta enpresetan.- Tasa aplikagarria

Kodea	Tarifaren deskripzioa	€/hiruhileko
1	Lokal edo establezimenduaren azalera m2 bakoitzeko	0,18
2.1(1)	Erabiltzaileen esku utzitako material birziklagarrietako frakzioen 1.000 litroko edukiontzi bakoitzeko, edota 1.000 litroko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio haiek biltzeko eskubidearekin.	24,00
2.2	Erabiltzaileen esku utzitako material birziklagarrietako frakzioen 360 litroko edukiontzi bakoitzeko, edota 360 litroko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio haiek biltzeko eskubidearekin.	16,00
2.3	Erabiltzaileen esku utzitako errefusaren 1.000 litroko edukiontzi bakoitzeko, edota 1.000 litroko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio haiek biltzeko eskubidearekin.	40,00
2.4	Erabiltzaileen esku utzitako errefusaren 360 litroko edukiontzi bakoitzeko, edota 360 litroko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio haiek biltzeko eskubidearekin.	25,00
2.5	Erabiltzaileen esku utzitako inertearen 1.000 litroko edukiontzi bakoitzeko, edota 1.000 litroko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio haiek biltzeko eskubidearekin.	40,00
2.6	Erabiltzaileen esku utzitako inertearen 360 litroko edukiontzi bakoitzeko, edota 360 litroko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio haiek biltzeko eskubidearekin.	25,00
2.7	Erabiltzaileen esku utzi eta soilik materia organiko konpostagarriarako den 1.000 litroko edukiontzi bakoitzeko edota 1.000 litroko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio haiek biltzeko eskubidearekin.	24,00

2.8	Erabiltzaileen esku utzi eta soilik materia organiko konpostagarriako den 360 litroko edukiontzi bakoitzeko edota 360 litroko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio haiek biltzeko eskubidearekin.	16,00
2.9	Erabiltzaileen esku utzi eta soilik materia organiko konpostagarriako den 120 litroko edukiontzi bakoitzeko edota 120 litroko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio haiek biltzeko eskubidearekin.	7,00
2.10	Erabiltzaileen esku utzi eta soilik materia organiko konpostagarriako den 40 litroko edukiontzi bakoitzeko edota 40 litroko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio haiek biltzeko eskubidearekin.	3,00
3.1	Inerteak biltzeko 1.000 litroko edukiontziaekin prestatutako zerbitzu unitate bakoitzeko, betiere material birziklagarriak ez badu.	24,20
3.2	Inerteak biltzeko 360 litroko edukiontziaekin prestatutako zerbitzu unitate bakoitzeko, betiere material birziklagarriak ez badu.	14,52
3.3	Errefusa bildutako 1.000 litroko edukiontziaekin prestatutako zerbitzu unitate bakoitzeko.	30,25
3.4	Errefusa bildutako 360 litroko edukiontziaekin prestatutako zerbitzu unitate bakoitzeko.	18,15
3.5*	Soilik materia organiko konpostagarria biltzeko 1.000 litroko edukiontziaekin prestatutako zerbitzu unitate bakoitzeko.	6,00
3.6*	Soilik materia organiko konpostagarria biltzeko 360 litroko edukiontziaekin prestatutako zerbitzu unitate bakoitzeko.	3,00
3.7*	Soilik materia organiko konpostagarria biltzeko 120 litroko edo txikiagoa den edukiontziaekin prestatutako zerbitzu unitate bakoitzeko.	1,50
4 (2)	Zerbitzu bereziak	282,08 €/zerbitzuko + isurtzeko tasa

(1) Paper-kartoi eta ontzi arinak birziklatzeko edukiontziak izan ezik, betiere beste hondakin-frakzio batzuk nahasirik ez badaramatzate

(2) Zerbitzu berezien hondakinak kargatzeko bitarteko laguntzaileak behar izanez gero, bitarteko horiek zerbitzuaren erabiltzaileak berak jarri beharko ditu.

(3) Edukiontzian dagoen hondakina ez badator bat edukiontzi horri zehaztu zaion erabilerarekin, errefusari ezartzen zaion tasa ezarriko zaio. Tasa zehazteko edukiontziaren tamaina ordenantzaren ageri den bera edota hurrengo goragokoa izango da.

(4) Kargurik gabe izango da paper-kartoi eta ontzi arinen bilketa

* Frakzio honen bilketa gutxienez astean behin egingo da.

II.- Eranskina.- Eraikin kolektiboetan dauden bulego eta enpresa txikiak

Kodea	Tarifen deskripzioa	€/hiruhileko
10	Lokal edo establezimenduaren azalera =< 50m ²	48,73
11	50m ² < Lokal edo establezimenduaren azalera =< 100 m ²	58,41
12	100 m ² < Lokal edo establezimenduaren azalera = < 150 m ²	70,07
13	150 m ² < Lokal edo establezimenduaren azalera = < 200 m ²	84,15
14	200 m ² < Lokal edo establezimenduaren azalera = < 250 m ²	109,98
15	250 m ² > Lokal edo establezimenduaren azalera	121,22

Eremu industrialean tarifak aplikatzeko arauak:

1. Ordaintzera derrigortua

)1 Eremu industrial izeneko atal honetan dauden zergak ordaintzean lokalaren unitatearena printzipio nagusia da, horretan aipatzen diren aurreikuspen zehatzak izan ezik.

)2 Eraikin berean banan-banako erabilera edota edozein moduan erabilera bereizita izan dezaketen lokalak baldin badaude eta horietan batera jarduera desberdinak gauzatzen badira, jarduera bakoitzari dagokion zerga ordainduko da.

)3 Aurreko puntuan aurrez ikusitako hipotesi berean jarduera horietan titular desberdinak ari badira, bakoitzak dagokion zerga ordainduko du kasu bakoitzean aplikagarria den tarifaren bat.

)4 Baldin eta eraikin batean erabilera komunitarioko edukiontziak badaude, zerbitzu horri dagozkion tasak eraikin horretako jabe-erkidegoari kobratuko zaizkio.

.2 Oinarria

Kuota kalkulatzeko lokalen azalera, zerbitzua erabiltzen duen bakoitzari emandako edukiontzi-kopurua eta bakoitzak bilketa-zerbitzua erabiltzen dituen aldiak hartuko dira kontuan:

- **Azalera:** Lokal edo establezimendu bakoitzak dituen metro karratuak. Gehienez 2.000 m² kontuan hartuko zaizkie azalera hori gainditzen duten enpresei.
- **Edukiontzi kopurua:** zerbitzua erabiltzen duen bakoitzari, hondakin-ekoizpena kontuan hartuta benetako beharren arabera, Udalak eskura jartzen dion edukiontzi kopurua edo erabiltzaileak zerbitzua jasotzeko eskubidea duten jarritako edukiontziak.
- **Zerbitzu-unitateak:** Erabiltzaileak bilketa zerbitzuei, horiek husteko edukiontzia ematen dien bakoitzean.

.3 Tarifak

Eremu industrialaren atalaren I eta II eranskinetan aplikatuko diren tarifak zehazten dira.

Horiek aurreko artikuluan izendatutako irizpideak jarraituko dituzte. Hauek dira irizpideak

- 1.- Lokal edo establezimendu bakoitzak duen azalaren metro karratuko bakoitza
- 2.- Hondakinak isurtzeko erabiltzailearen eskura jarri den edukiontzi bakoitza edo erabiltzaileak, zerbitzua jasotzeko eskubidea duten jarritako edukiontziak
- 3.- Emandako zerbitzu-unitate bakoitza. Zerbitzu-unitatetzat jotzen da edukiontzi bakoitza kentzen den aldi bakoitzean.

.4 Tasaren kuota

Ordaindu behar den tasaren kuota osagai hauek betetzearen ondorioz ateratako emaitza izango da:

- 1.- metro karratu bakoitzeko atal honen eranskinean ezarri den tarifa bider lokal edo establezimendu bakoitzak duen azalera guztizko metro karratuak.
- 2.- Erabiltzaileari emandako edukiontzi edo zerbitzu-eskubide bakoitzeko atal honen eranskinean ezarri den tarifa bider erabiltzaileak dituen edukiontziak.
- 3.- Zerbitzu-unitate bakoitzeko atal honen eranskinean ezarri den tarifa bider benetan dituen edukiontzi guztiak

ERANSKINA

9. UR HORNIDURA

9.1. Ur hornidura, Tarifak, lauhilabeteko zenbatzea.

- Zerbitzu-kuota finkoa.

Kuota hau ur hornidura emateagatiko zerbitzua abonatuaren eskura jartzeari dagokio, eta kontagailuaren kalibrearen arabera ezartzen da. Kuota uraren pasabide sekzioarekiko proportzionala da eta, horrenbestez, erabiltzaileak erabilgarri duen ur emariarekiko.

Kontzeptua	Euro
Banakako kontagailua duten etxebizitzetako etxeko erabilera arrunterako hornidura.	12,60
<u>Salbuespena:</u> ez zaie tarifa hau aplikatuko familia bakarreko etxebizitzetako (etxebizitza isolatuak, pareatuak eta atxikitakoak). Etxebizitza horiei kalibrearen araberako tarifa	

aplikatuko zaie, hots, gainerako horniduren atalean ezarritako kalibrearen araberakoa.	
<p>Kontagailu orokorra duten etxebizitzetako etxeko erabilera arrunterako hornidura. Ordaindu beharreko kuota honela kalkulatu da: banako kontagailuaren tarifa bider finkan dauden abonatuaren kopurua.</p> <p><u>Salbuespena:</u> ez zaie tarifa hau aplikatuko bizilagunen komunitateetako instalazio edota zerbitzu komunitariko kontagailu orokorrei (berogailuak, atarien garbiketa...). Horiei kalibrearen araberako tarifa aplikatuko zaie, hots, gainerako horniduren atalean ezarritako kalibrearen araberakoa.</p>	12,60
Gainerako hornidurak:	
13 mm-ko kalibrea	18,70
15 mm-ko kalibrea	21,50
20 mm-ko kalibrea	22,10
25 mm-ko kalibrea	30,35
30 mm-ko kalibrea	40,90
40 mm-ko kalibrea	52,80
50 mm-ko kalibrea	62,00
65 mm-ko kalibrea	108,75
80 mm-ko kalibrea	141,80
100 mm-ko kalibrea	201,45

- **m³ko kontsumo**, erabiltzailearen eta zatien arabera berezitu beharko da.

1.- Etxeetako hornidura, hiri-lurrean eta landa-lurrean (baserriak)

65 m ³ arte	0,55 €
65 m ³ baino gehiago	1,05 €

2.- Merkatal eta garajeetako hornidurak

35 m ³ arte	0,72 €
35 m ³ baino gehiago	1,20 €

3.- Ostalaritza, industria, eta zerbitzuetako hornidurak

65 m ³ arte	1,02 €
65 m ³ tik gora 600 m ³ ra bitartean	1,86 €
600 m ³ baino gehiago	2,24 €

4.- Eraikuntza, obra eta zundaketako jardueretako hornidurak

50 m ³ arte	1,60 €
50 m ³ baino gehiago	2,04 €

5.- Sute aurkako hornidurak

Zatirik gabe: 0,47 € x m³ (estolderian salbuetsita)

6.- Jabadun finkak ureztatze eta igerilekuetako hornidurak

500 m ³ arte	1,60 €
500 m ³ baino gehiago	2,04 €

7.- Udaleko eta bere Erakundeetako, Autonomiadunetako zein Patronatueta hornidurak

Etxeetako kuota

65 m ³ arte	0,55 €
65 m ³ baino gehiago	1,05 €

8.- Ondoko taldeetako hornidurak: Ikastetxe, ospitale, anbulatorio (Osakidetzaren menpean dauden osasun zerbitzuak), hirugarren adineko egoitza, Udalak aitortutako Auzo Elkarte, eta Udalaren Intereserako elkarten erregistroan inskribatutako Elkarte, DYA eta Gurutze Gorria, Etxeetako kuota

65 m ³ arte	0,55 €
65 m ³ baino gehiago	1,05 €

9.2 Udal sarearekiko hartuneak

1.- Obra hartuneak

Obra hartunerako zein behin betikorako zenbateko berdinak eskatuko dira, eta, erabilitako kalibrearen arabera izango dira zenbatekoak horiek.

2.- Behin betiko hartuneak

1.2 kalibre mota

Kalibre mota	Euro
15 mm-rainokoak	271,05
20 mm	325,30
25 mm	390,90
30 mm	502,55
40 mm	614,20
50 mm	725,90
60 mm	837,55
60 mm suterako	446,65
80 mm	1.005,10
80 mm suterako	502,55
100 mm	1.116,75
100 mm suterako	614,20

3.-Behin betiko hartuneak, ordeztu edo handiagotzeagatik: eskaturiko hartunearen prezioetik benetan ezarritako hartunean preziora dagoen tartea.

9.3. Sarera lotzeko eskubideak

Tasa hau sortuko da, lehen erabilera eman ondoren, jabeak bere ondasun higiezinarako ur hornidura eskatzen duenean, Udalaren Ur Zerbitzuko Araudian ezarritakoaren arabera.

Horrela, kontratua izenpetu aurretik, eskatzaileak tasaren autolikidazioa aurkeztu beharko du.

Kalibre mota	Euro
15 mm	86,70
20 mm	130,10
25 mm	195,40
30 mm	279,20
40 mm	390,90
50 mm	658,90
50 mm suterako	362,90
60 mm	837,55
60 mm suterako	457,90
80 mm	977,15
80 mm suterako	491,40
100 mm	1.172,60
100 mm suterako	586,30

9.4. Kontagailuak aztertzea

Tasa hau sortuko da kontagailua egiaztatzeko eskaera eskatzen denean, erreklamazioak kudeatzeko garaian. Kudeaketa hori honela egingo da

- a) Abonatutakoak erreklamazioa idatziz egin beharko du, eta erreklamazioari irtenbide egokia emateko bidezko jotzen dituen argudio guztiak adierazi beharko ditu. Hilabeteko epea dauka, gehienez ere, borondatezko ordainketa egiteko epea bukatzen denetik aurrera.

- a) Erreklamazioa aurkezten bada ere bilketa prozedura ez da etengo, salbu eta zerbitzua ematen duen enpresak lekuan bertan ur kontagailuren baten egiaztatze txostena egin behar badu. Hori gertatuz gero erreklamaziogileak zerbitzuaren kostua ordaindu beharko du. Hauxe da:

Diametroa	Euro
13 mm	43,35
15 mm	48,80
20 mm	54,25
25 mm	61,40
30 mm	67,00

Aurkeztutako erreklamazioa ebazten denean, erreklamaziogileari dirua itzuliko zaio enpresak egindako txostenak kontagailua gaizki zebilela berresten bada, bestela ez. Ez bada berresten gaizki zebilela, ez zaio inolako diru kopururik ordainduko, ordaindutako diru horrekin zerbitzua eman duen enpresari ordainduko baitzaio.

Tarifa aplikatzeko arauak:

- 1.- Tasa hau zerbitzua ematen den aldiro ordaindu beharko da, derrigor, nahiz eta zerbitzua ez erabili. Erabiltzen ez bada, gutxieneko tarifa ordaindu beharko da.
- 2.- Kontsumitutako ur metro kubiko kopurua hartuko da exakzio honen oinarri gisa. Metro kubikoen kopuru kontagailu bakoitzeko zehaztuko da; edo, kontagailua baimenarekin aldi baterako kentzen bada, aurreko urtean epe berean egindako kontsumo bera hartuko da kontuan. Irizpide hori aplikatzerik ez badago, kontsumoaren balioespen bat egingo da.
- 3.- Kontagailuak eta horien instalazioak Industria Ordezkaritzak ezarrita dituen arauen arabera arautuko dira, hori baita kontagailuak kontrolatzeko eta ikuskatzeko erakunde eskuduna.
- 4.-Bestalde, errespetatu beharko dira udalak kontagailuen ahalmenari eta kontagailua eraikinetako leku egokietan jartzeari buruz dituen arauak eta ordenantzak ere.
- 5.- Finken alten kasuan, tasak eragina izango du Udalak etxebizitza eta lokaleei lehen erabilerarako baimena ematen dien egunetik aurrera. Dena den, ordaindu beharrekoa izango da kontagailuek lehen erabilerako baimena emandako egunetik aurrera edo lehenagotik adierazten duten kontsumo osoa. Kasu horietan tasa zuzenean kitatuko da eta altaren berri jasoko da, hurrengo hiruhileko erroldan sartzeko.

6.- Jarraian hiru ordainagiri ordaindu gabe utzi direnean erabiltzaileak zerbitzuari uko egiten diola ulertuko da, eta honek, interesatuaren audientzia barne izango duen administrazio espedientea izapidetu ondoren, horniduraren etena baimenduko du.

7. Fakturazioko kontsumoaren arrazoiak itogina, matxura edo barneko instalazioen eraikuntzan edo artapenean izan daitekeen edozein akatsen ondorio badira, kontsumoaren m³ guztiak ordainduko dira tarifaren lehenengo tramuaren zenbatekoarekin. Horretarako, ezinbestekoa da ondoko baldintzak betetzea:

7.1 Matxura, itogina...konpondu egin behar da errekurrituko fakturazioko epealdiaren eta hurrengo epealdiaren artean. Era berean, bakarrik kontsumoak tarifaren tramurik gabe fakturatuko dira fakturazioko epealdi batean.

Udal Zerbitzuek matxuraren berri emanez gero eta matxuraren konponketa indarrean dagoen fakturazioko epealdian egiten ez bada, ez da aplikatuko tarifaren tramurik gabeko fakturazioaren salbuespena.

7.2 Matxuraren konponketaren frogagiri ofizialak aurkeztu behar dira: konponketaren ordainketa; aseguruaren txostena edo fakturak.

7.3 Matxura berriro gertatzen bada instalazio beran, eta konponketaren garantiaren barruan ez badago, fakturazioko kontsumoaren m³ guztiak ordainduko dira tramuak aplikatuta. Izan ere, instalazioen artapena abonatuak pertsonei dagokie.

7.4 Matxura, itogina...erreklamatzeko epea da errekurritutako kontsumoen ordainagiria erreklamatzeko legezko epealdia

10. UDAL HAURTZAINDEGIA

2006an indargabetua

11.- "HERNANI" MUSIKA ESKOLA PUBLIKOA

2017/2018 IKASTURTEKO TASAK:

Maila	Irakasgaia	Hernanin erroldatuek	Hernanin erroldatu gabeek
1	Hastapena	215,27	258,33
2	Soinu-tresna (txalaparta ezik)	321,30	385,56
	Txalaparta	160,65	192,78
	Talde instrumentala edo abesbatza	64,26	77,12
	panderoa	64,26	77,12
	Lengoaia Musikala	64,26	77,12

	Musika Hezkuntza	32,13	38,56
3	Soinu-tresna	385,56	462,67
	Txalaparta	208,85	250,61
	Talde instrumentala edo abesbatza	80,33	96,39
	Musikaren teknika lagungarriak	385,56	462,67
4	Soinu-tresna	449,82	539,78
	Talde instrumentala edo abesbatza	80,33	96,39
	Musikaren teknika lagungarriak	385,56	462,67

Tarifa ezartzeko arauak:

1. Ordainketa ondorengo eran egingo da:

- %34a interesatuak esaten duen kontu korrontetik hartuko zaio, matrikula egin aurretik.
- %33a kontu korrante beretik, abenduaren hasieran.
- beste %33a kontu korrante beretik, martxoaren hasieran

2. Ikasturtean zehar, ikasle guztiek egindako matrikularen arabera dagokien prezio osoa ordaindu beharko dute.

3. Edozein ikastaro edo klasetan baja hartu behar dela jakinaraziz gero ez dira kuotak itzuliko edo ezabatuko. Honen salbuespena izan daitezke norberaren gaixotasun larriak kurtso erdia baina iraupen luzeagokoen kasuak. Salbuespen hau Tokiko Gobernu Batzarrak erabakiko du, eta horretarako ezinbestekoa da agiri-medikuak frogatzea alegatutako gaixotasuna

4. Hasitako ikasturtearen lehen hiruhilabetekoan matrikulatzen den ikasleak zerbitzua hartzen hasi denetik egutegia bukatu arte dauden hilabete kopuruaren arabera proportzionalki ordainduko du ordaindu beharreko prezioa.

5.-Onura fiskalak: Tasaren Ordenantzaren 7. artikulua aplikatuko da.

1.1 "KANTUZ" MUSIKA ESKOLA

"KANTUZ" MUSIKA ESKOLA. 2017/18 IKASTURTEKO TASAK:

Hernanin bizi direnak	233,09 € *
Hernanin bizi ez direnak	279,78 €

*Onura fiskalak: Famili unitateko diru sarreraren arabera, onura fiskalak jaso ahal izango dira. Onura horien aplikazioa Tasen Ordenantzaren 7. artikulua arabera egingo da.

Tarifa ezartzeko arauak:

1. Ordainketa ondorengo eran egingo da:

- %34a interesatuak esaten duen kontu korrontetik hartuko zaio, matrikula egin aurretik.
- %33a kontu korronte beretik, abenduaren hasieran.
- beste %33a kontu korronte beretik, martxoaren hasieran

2. Ikasturtean zehar, ikasle guztiek egindako matrikularen arabera dagokien prezio osoa ordaindu beharko dute.

3.- Edozein ikastaro edo klasetan baja hartu behar dela jakinaraziz gero ez dira kuotak itzuliko edo ezabatuko. Honen salbuespena izan daitezke norberaren gaixotasun larriak kurtso erdia baina iraupen luzeagokoen kasuak. Salbuespen hau Tokiko Gobernu Batzarrak erabakiko du, eta horretarako ezinbestekoa da agiri-medikuak frogatzea alegatutako gaixotasuna

4. Hasitako ikasturtearen lehen hiruhilabetekoan matrikulatzen den ikasleak zerbitzua hartzen hasi denetik egutegia bukatu arte dauden hilabete kopuruaren arabera proportzionalki ordainduko du ordaindu beharreko prezioa.

5.- Onura fiskalak: Tasaren Ordenantzaren 7. artikulua aplikatuko da.

12. KULTURA SAILEKO IKASTAROAK

2017/2018 kuotak:

1.- Hernanin bizi direnentzat:	€
---------------------------------------	---

HELDUAK	2017/2018
Ikasturte osoa: 2 egun astean, guztira 4 ordu	267,24 €
Ikasturte osoa: 2 egun astean, guztira 3 ordu	200,94 €
Ikasturte osoa: egun 1 astean, 3 ordu	200,94 €
Ikasturte osoa: egun 1 astean, 2,5 ordu	167,28 €
Ikasturte osoa: egun 1 astean, 2 ordu	131,58 €
Ikasturte osoa: egun 1 astean, 1,5 ordu	97,92 €
72 ordukoak	142,80 €

60 ordukoak	118,32 €
40 ordukoak	78,54 €
15 eta 30 ordu bitartekoak	61,20 €
15 ordu baino gutxiagokoak	33,66 €
HAURRAK (14 urte bitarte)	
Urria/maiatza: 3 ordu astean	129,54 €
Urria/maiatza: 2 ordu astean	87,72 €
Urria/maiatza: 1,5 ordu astean	65,25 €
15 eta 30 ordu bitartekoak	38,76 €

2.- Hernanin bizi ez diren ikasleek honako kopuru hauek ordainduko dituzte matrikularengatik.

HELDUAK	2017/2018
Ikasturte osoa: 2 egun astean, guztira 4 ordu	348,84 €
Ikasturte osoa: 2 egun astean, guztira 3 ordu	265,20 €
Ikasturte osoa: egun 1 astean, 3 ordu	265,20 €
Ikasturte osoa: egun 1 astean, 2,5 ordu	220,32 €
Ikasturte osoa: egun 1 astean, 2 ordu	175,44 €
Ikasturte osoa: egun 1 astean, 1,5 ordu	127,50 €
72 ordukoak	184,62 €
60 ordukoak	156,06 €
40 ordukoak	105,06 €
15 eta 30 ordu bitartekoak	77,52 €
15 ordu baino gutxiagokoak	40,80 €
HAURRAK (14 urte bitarte)	

Urria/maiatza: 3 ordu astean	167,28 €
Urria/maiatza: 2 ordu astean	113,22 €
Urria/maiatza: 1,5 ordu astean	86,70 €
15 eta 30 ordu bitartekoak	51,00 €

Tarifa aplikatzeko arauak:

1.- Ordainketa ondorengo era honetan egin daiteke:

- ordainketa bakarria matrikula egin aurretik, interesatuak ematen duen kontu korrontean.
- edota, hiru ordainketa:
 - a ordainketa osoaren %34a matrikula egin aurretik, interesatuak ematen duen kontu korrontean.
 - b beste %33a abenduaren hasieran, interesatuak ematen duen kontu korrontean.
 - c Beste %33a martxoaren hasieran, interesatuak ematen duen kontu korrontean.

2.- Ikastaroa hasiz gero ikasle guztiek egindako matrikularen arabera dagokien tarifa osoa ordaindu beharko dute. Edozein ikastaro edo klasetan baja hartu behar dela jakinaraziz gero ez dira kuotak itzuliko edo ezabatuko. Honen salbuespena izan daitezke norberaren gaixotasun larriak kurtso erdia baina iraupen luzeagokoen kasuak. Salbuespen hau Tokiko Gobernu Batzarrak erabakiko du, eta horretarako ezinbestekoa da agiri-medikuak frogatzea alegatutako gaixotasuna

3.- Ikasurte hasieran matrikula honako kasu hauetan itzuliko da:

3.1 Ikasleren bat lehendabiziko astean lanean hasten bada, baldin eta lanean hasi den enpresaren egiaztagiriaren bidez egiaztatzen badu (enpresaren zigilua beharrezkoa da).

3.2 Lehendabiziko astean ikasleak gaixotasunen bat dela eta baja ematen badu, aurreko puntuan egindako salbuespen bera egingo da, baina medikuaren egiaztagiri ofiziala aurkeztu beharko du.

3.3 Ikasleak aukeratutako ordutegian taldea osatuko ez balitz.

4.- Ikaslea ikastaroa beranduago hasi beharrean badago bere errua ez den arrazoiren bat tarteko, dagokion matrikula kopuruaren zati proportzionala ordainduko du.

5.- Onura fiskalak: ordenantzaren 7. artikulua aplikatuko da.

13.- UDAL EUSKALTEGIA

AURREZ AURREKO IKASTAROAK ETA AUTOIKASKUNTZA

A) Hauek izango dira 2017/2018 ikasturtean aplikatuko diren tarifak:

	Ikasturte osoa	Bigarren hiruhilekoan	Hirugarren hiruhilekoan
25 ordu astean	1164,97 €	776,64 €	388,32 €
20 ordu astean	931,97 €	621,31 €	310,65 €
15 ordu astean	698,98 €	465,99 €	232,99 €
12 ordu astean	559,18 €	372,78 €	186,39 €
10 ordu astean	465,98 €	310,65 €	155,32 €
8 ordu astean	372,81 €	248,54 €	124,27 €
7 ordu eta erdi astean	349,49 €	232,99€	116,49€
6 ordu astean	279,48 €	186,32 €	93,16 €
5 ordu astean	232,98 €	155,32 €	77,66 €
4 ordu astean	186,66 €	124,44 €	62,22 €
Autoikaskuntza	465,98 €	310,65 €	155,32 €

Beste modulu guztietako kostua 1,45 €/orduko izango da (ikasmateriala barne).

B) Tarifa aplikatzeko arauak:

B.1. Matrikula ordaintzea helbideratu egingo da; beraz, ikasleari kontu korrontea eskatuko zaio

B.2 Matrikularen ordainketa honela egingo da:

1. Ikastaldi osoan matrikulatzen den ikasleari matrikula hiru zatitan kobratuko zaio, honako data hauetan:

1. Klaseak hasitakoan, urrian, %33,3
2. Abenduan %33,3
3. Otsailean %33,3

2. hiruhilekoan, urtarrilean, matrikulatzen den ikasleari matrikula bi zatitan kobratuko zaio, honako data hauetan:

1. Klaseak hasitakoan, urtarrilean, %50

2. Apirilean %50

3. hiruhilekoan, Aste Sainduaren ondoren, matrikulatzen den ikasleari matrikula zati bakarran kobratuko zaio, honako data hauetan:

1. Klaseak hasitakoan, apirilean, %100

C. Matrikularen itzulketa

Matrikula honako kasu hauetan itzuliko da:

- Gaixotasun arrazoiak.

1. Lehendabiziko astean ikasleak, norberaren gaixotasun bat dela eta, baja ematen badu, medikuaren egiaztagiri ofizialaren bidez frogatu behar du.

2. Norberaren gaixotasun larria kurtso erdia baino iraupen luzeagokoen kasuak. Ezinbestekoa izango da medikuaren agiri bidez frogatzea alegatutako gaixotasuna. Erabakia Tokiko Gobernu Batzarrek hartuko du.

- Laneko arrazoiak.

Ikasleren bat lanean hasten bada, enpresaren ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko du. Enpresaren zigilua beharrezkoa izango da

- Euskaltegiaren funtzionamendutik eratorritako kasuak

.Ikasleak nahi duen ordutegian talderik osatu ez bada eta beste ordutegi batean ezin badu.

2. Ikaslea maila batean hasi ondoren, beste maila batean egotea komeni zaiola konturatu bagara, eta ordutegi horretan dagokion mailako talderik ez badauka edota beste aukerak baztertzeko baditu, ordaindutakoa itzuli egingo zaio.

D. Diru-laguntzetarako eskubidea

-Arrazoa edozein dela ere, ikasleak diru-laguntzetarako eskubidea izango du BAJA izan arren, baldin eta diru-laguntza eskuratzeko baldintzak betetzen baditu. Diru-laguntzetarako baldintzetako bat asistentzia da: Ikaslea matrikulatu denetik BAJA idatziz jakinarazi duen arteko epean izan duen asistentzia hartuko da aintzat diru-laguntza eskuratzeko.

ERANSKINA

14.- UZTAILEKO UDALEKUAK

Kontzeptua	Euroak

Kanpamendu irekien matrikula	
Arrunta	97,25
Gizarte laguntza jasotzen duten familietako haurrek	9,73
Udako jardueren matrikula	
Arrunta	97,25
Gizarte laguntza jasotzen duten familietako haurrek	9,73

c) Onura fiskalak: 7. artikulua ezarriko da.

ERANSKINA

15.- HERNANIKO UDALEKO ZERBITZU SOZIALAK ERAKUNDEAREN* ZERBITZUAK ERABILTZEA.

*izena aldatuta GAO 2016ko irailaren 12a

15.1.- Zaharren egoitza

Eusko Legebiltzarrak onetsitako Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak 18. artikuluan ezartzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzuak antolakuntzarako atalak direla, gizarte-zerbitzuetako erakunde batek kudeatzen dituela eta prestazio tekniko nahiz teknologiko batek edo gehiagok osatzen dutela. Zerbitzuak helburuen arabera, zerbitzu-hartzaileen ezaugarrien arabera, iraupenaren arabera edota ematen duten prestazio motaren arabera izan daitezke. Prestazio motak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Karteran zehazturik dagoen moduan beharko du izan.

Gizarte Zerbitzuen Lege horren xedea da, besteak beste, gizarte zerbitzuen alorrean Eusko Jaurlaritzari, foru aldundiei eta udalei dagozkien erantzukizunak zehaztea.

Lege horren III. Tituluak foru aldundiei egotzen dizkie Bigarren Mailako Arretako Gizarte Zerbitzuak, besteak beste, adinduentzako egoitza-zentroak eta eguneko zentroak

Bigarren Mailako Arretako Gizarte Zerbitzuen bidez adineko pertsonen arreta ematea Gipuzkoako Foru Aldundiaren erantzukizuna denez, berari dagokio lurralde historiko honetako ekipamenduetara iristeko prozedura arautzeko ardura. Halaber, apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretuaren eta urriaren 10eko 43/2006 Foru Dekretuaren bidez berari egotzi zaio Hernaniko Santa Maria Magdalena Zaharren Egoitzara iristeko prozedura zehaztea. Dekretu horrek, gainera, horrelako egoitzetan sartu nahi dutenek bete behar dituzten eskakizunak zehazten ditu, baita egoitza horietan onartutakoekin egin behar duten ekarpen ekonomikoa ere, plaza mantentzearen.

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeak, azkeneko prestazio mota horri dagokionez, zaharren egoitza bat dauka, beren egoera fisiko-psikikoagatik eta familia-ingurune egoki bat edo bizikidetzarako bestelako alternatibarik ez izateagatik, beren ingurune naturalean ezin mantendu daitezkeen pertsona helduei arreta osoa eskaintzeko.

Bestalde, aipatutako Lege horretako 57. artikuluan ezartzen da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Kartera osatzen duten prestazio eta zerbitzuen finantzaketan, doakoak ez direnetan, erabiltzaileek izango duten parte-hartzea kasuan kasuko prezio publiko edo tasek zehaztuko dutela, Lege honetan eta Lege honen garapeneko xedapenetan Euskal Autonomia Erkidego osorako ezartzen diren irizpideen arabera.

Horregatik guztiagatik, Zaharren Egoitza zerbitzuaren tasa honela arautuko da:

1.Xedea.

Eranskin honen xedea zaharren egoitzan dauden egoiliarrei ematen zaien zerbitzuari dagokion tasa arautzea, kudeatzea eta likidatzea da.

2.Kontzeptua.

Egoitzan dauden egoiliarrei emandako zerbitzutzat jotzen dira, egoiliarrek Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeari atxikitako Santa Maria Magdalena zaharren egoitzan egiten duten egonaldian behar dituzten zerbitzuak.

3.Zaharren egoitzan hartuko diren pertsonak sailkatzea.

Ordenantza honen ondorioetarako, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeari atxikitako Santa Maria Magdalena zaharren egoitzan onartzen direnak beren egoera fisiko-psikikoaren eta zaharren egoitzan onartu direneko dataren arabera sailkatuko dira honako kategoria hauetan:

Egoiliar gaituak.

Egoiliar ezinduak, ezintasun handikoak, psikogeriatrikoak eta soziosanitarioak.

Egoiliarrek beren egoera fisiko-psikikoaren arabera kalifikatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak adinduen ezintasun maila baloratzeko finkatuko duen arautegia erabiliko da.

Hasiera batean, zerbitzurako eskaria egin duen pertsona zerbitzuan onartu aurretik sailkatuko da eta; gero, hasiera batean egindako sailkapen horretako arrazoiak aldatu direla uste denean. Egoiliarren sailkapen berriaren ondorioz hark ordaindu behar duen tasan aldaketarik sortzen bada, aldaketa atzeman den hilean hasiko da tasa berriari dagokiona ordaintzen.

4.Dirusarrerak zehaztu eta kalkulatzeko.

a)Gaituak.

Ordenantza honen eraginetarako, egoitzan onartutako egoiliar bakoitzaren ahalmen ekonomikoa errentaren, ondarearen eta unitate familiarrean bizi diren kideen kopuruaren arabera kalkulatzeko da.

Errentatzat hartuko dira unitate familiarrek honako diru-iturrien bidez dauzkan diru-sarrera guztiak:

—Lanaren errendimendua, pentsioak eta gizarte aurreikuspenen emaitzak barne, edozein delarik ere horien erregimena.

—Kapital higikorren eta higiezinaren errendimenduak.

—Enpresari edo profesional bezala egindako jardueren errendimenduak.

Diru-iturri horien guztien balioa kalkulatzeko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan ezarritako arauak jarraituko dira.

Ondaretzat joko da egoiliarrek daukan kapital higigarri guztia, eta horretarako zerbitzua hartzen hasi baino lau urte lehenagotik zeukana baloratuko da. Kapital higigarri horren balioa kalkulatzeko, Ondarearen gaineko Zergan ezarritako arauak jarraituko dira.

Kapital higigarritzat joko dira kontu korranteetako eta epekako gordailutzeak, inbertsio fondoak eta pentsio fondoak, baita balore higagarriak, bizi aseguruak eta aldi baterako edo biziarteko aseguruak ere, hala nola arte gauzakiak eta antigoalekoak. Bitxiak eta balioa duten beste gauza asko ere kontuan izango dira.

Kapital higiezintzat joko dira landa eta hiriko izaera duten ondasunak.

Familia unitatetzat joko dira senar-emazteak eta beren kargura dauden adingabeak, baita adineko ezinduak ere, baldin eta horiek judizialki guraso-aginte luzatura edo egokitura lotuta badaude.

Ahalmen ekonomikoari buruz iruzur egiteak edo datuak ezkutatzeko zerbitzua ematea eten dezake behin-behineko edo behin betiko.

b) Ezinduak, ezintasun handikoak eta psikogeriatrikoak eta soziosanitarioak. Gipuzkoako Foru Aldundiak erabakitzen duena.

5. Tasaren zenbatekoa.

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeari atxikitako Santa Maria Magdalena Zaharren Egoitzako egonaldiagatik ordaindu beharreko tasa egoiliarren sailkapenaren arabera zehaztuko da.

Hona hemen zaharren egoitzako tasak:

Egoiliar gaituak: 68,19 euro/egun.

Egoiliar ezinduak, ezintasun handikoak, psikogeriatrikoak eta soziosanitarioak: Gipuzkoako Foru Aldundiak erabakiko du ebazpen administratiboaren bidez egoiliar bakoitzak egin behar duen ekarpena.

6. Egoiliarrek egingo duten diru-ekarpena:

a) Egoiliar gaituak.

Tasa era honetara ordainduko da:

1.- Egoiliar autonomoak.

Onuradunak ondare higiezina edo kapital higigarria badu, tasaren zenbateko osoa ordainduko du.

Tasa osoa ordaintzen ez duten egoiliarrek per capita diru-sarreren %75 ordainduko dute. Per capita horretan sartuko dira aparteko ordainsariak, eta laugarren artikuluan zehaztu den familia unitatea hartuko da hori kalkulatzeko oinarritzat.

Nolanahi ere, Langileen Gutxieneko Soldataren %20 utziko da egoiliarren eskura berak nahi duenerako.

Urtero-urtero egoiliarrek egiten duten ekarpena berrikusiko da, beren ordainketak errentekin batera eguneratzeko.

Dena den, zaharren egoitzako egoiliarrek eta, egoki balitz, beren legezko ordezkariak derrigorrez jakinaraziko diote Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeari beren errentan, ondarean eta familia unitateko kide-kopuruan aldaketarik egon bada, baita ordenantza honen aplikazioan eragina izan dezakeen beste edozein inguruabar ere. Egoiliarrek 30 eguneko epea izango du aldaketa horien berri emateko.

Tasa osorik ordaintzen ez denean, 9. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

2.- Egoiliar ezinduak, ezintasun handikoak, psikogeriatrikoak eta soziosanitarioak.

Egoitzako plaza Gipuzkoako Foru Aldundiak eta egoiliarrek finantzatuko dute, indarrean dagoen araudiarekin bat etorritz.

7.Ordaindu beharra dutenak.

Egoiliarrek edo zerbitzua hartzen dutenak derrigortuta daude aurreko artikulua aplikatuta ateratzen diren zenbatekoak ordaintzera, betiere egindako egonaldiagatik edo plaza erreserbatzeagatik.

Hernanin erroldatuta ez daudenek, zaharren egoitzan onartzeko, beraiek erroldatuta dauden herriko udalaren Gobernu Batzordearen edo Osoko Bilkuraren onespena beharko dute. Jatorrizko udal horiek, Hernaniko zaharren egoitzara joateko baimena emateaz gain, beraiei dagokien tasa ordaintzeko konpromisoa hartuko dute subsidiarioki, egoiliarrek tasa osorik ordaintzen ez badute. Egoitzan onartu baino urtebete lehenagotik Hernanin erroldatuta ez dagoen adinduek okupatuko duen plazari aplikatuko zaion tasa benetako kostuaren baliokidea izango da, plaza hori Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatzen dituenetakoa ez bada.

8.Zorra onartzea.

Hernanin erroldatutako egoiliar gaituek, zaharren egoitzan jasotzen dituzten zerbitzuei dagokien tasa osoa ordaintzen ez badute, ez dutelako eskuragarri diru-sarrera arrunt nahikorik, tasaren eta egoiliarrek ordaintzen duenaren arteko diferentzia izango dute zorretan Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearekin. Zor hori onartzen dutela egiaztatzeko, agiri bat sinatuko dute Udal Patronatuaren alde notarioaren bat lekuko.

9.Galdagarritasuna.

Oro har, ordaintzeko obligazioa dutenei galdatuko zaie egonaldiari dagokion tasaren zenbatekoa, hilabete bakoitzaren lehen egunetik edo, hala dagokionean, egoiliarra egoitzan onartu den lehen egunetik. Tasa Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeak agintzen duenaren arabera ordainduko da. Hala ere, arau horrek ez du adierazten kobratu beharrekoa oso-osorik edo zati batean aurreratzea edo aurretiaz gordailuan uztea eskatu ezin denik.

10.Kudeatzea, likidatzea eta kobratzea.

Eranskin honetan arautzen diren tasak urteko hilabete bakoitzaren amaieran likidatu eta kobratuko dira. Tasa horiek ordaintzeko modua tasa kobratzeko eskuduntza duen erakundeak erabakiko du.

15.2.- Eguneko zentroa

Eusko Legebiltzarrak onetsitako Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak 18. artikuluan ezartzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzuak antolakuntzarako atalak direla, gizarte-zerbitzuetako erakunde batek kudeatzen dituela eta prestazio tekniko nahiz teknologiko batek edo gehiagok osatzen dutela. Zerbitzuak helburuen arabera, zerbitzu-hartzaileen ezaugarrien arabera, iraupenaren arabera edota ematen duten prestazio motaren arabera izan daitezke. Prestazio motak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Karteran zehazturik dagoen moduan beharko du izan.

Gizarte Zerbitzuen Lege horren xedea da, besteak beste, gizarte zerbitzuen alorrean Eusko Jurlaritzari, foru aldundiei eta udalei dagozkien erantzukizunak zehaztea.

Lege horren III. Tituluak foru aldundiei egotzen dizkie Bigarren Mailako Arretako Gizarte Zerbitzuak, besteak beste, adinduentzako egoitza-zentroak eta eguneko zentroak.

Bigarren Mailako Arretako Gizarte Zerbitzuen bidez adineko pertsoneri arreta ematea Gipuzkoako Foru Aldundiaren erantzukizuna denez, berari dagokio lurralde historiko honetako ekipamenduetara iristeko prozedura arautzeko ardura. Halaber, apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretuaren eta urriaren 10eko 43/2006 Foru Dekretuaren bidez berari egotzi zaio Hernaniko Santa Maria Magdalena Eguneko Zentroa iristeko prozedura zehaztea. Dekretu horrek, gainera, horrelako zentroetan sartu nahi dutenek bete behar dituzten eskakizunak zehazten ditu, baita zentro horietan onartutakoek egin behar duten ekarpen ekonomikoa ere, plaza mantentzearen.

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeak eguneko zentro bat dauka laguntza behar duten adineko pertsonen beharrei erantzuteko, hain zuzen, egoitza batean sartzeko beharra izan gabe, ohiko bizilekuan behar bezala eman ezin diren berariazko zainketak behar dituztenei erantzuteko. Zentro honen bidez, gainera, adinekoaren familiari ere laguntzen zaio, familiako kideek lan eta gizarte arloko bizitzarekin jarrai dezaten ahalbidetzen baita.

Bestalde, aipatutako Lege horretako 57. artikuluan ezartzen da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Kartera osatzen duten prestazio eta zerbitzuen finantzaketan, doakoak ez direnetan, erabiltzaileek izango duten parte-hartzea kasuan kasuko prezio publiko edo tasek zehaztuko dutela, Lege honetan eta Lege honen garapeneko xedapenetan Euskal Autonomia Erkidego osorako ezartzen diren irizpideen arabera.

Horregatik guztiagatik, Eguneko Zentroa zerbitzuaren tasa era honetara arautuko da:

1.Xedea.

Eranskin honen xedea Eguneko Zentroan dauden erabiltzaileei ematen zaien zerbitzuari dagokion tasa arautzea, kudeatzea eta likidatzea da.

2.Eskaintzen diren zerbitzuak.

A) Eguneko banakako atentzioa. Erabiltzaileei emandako zerbitzutzat jotzen dira erabiltzaileek Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeari atxikitako Santa Maria Magdalena Eguneko Zentroan egiten duten egonaldian behar dituzten zerbitzuak.

Eguneko zentroak bi zerbitzu eskaintzen ditu:

1.- Astegunetan, astelehenetik ostiralera.

2.- Asteburuetan eta jaiegunetan.

B) Eguneko zentroan ohikoak ez diren erabiltzaileei eskaintzen zaizkien beste zerbitzu gehigarri batzuk: otorduak.

1.Gosaria.

2.Bazkaria.

3.Merienda.

4.Afaria.

Eguneko zentroan hartuko diren pertsonak sailkatzea.

A) Eguneko banakako atentzioa.

Ordenantza hau aplikatzearen ondorioetarako, Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuari atxikitako Santa Maria Magdalena Eguneko Zentroan onartzen direnak, beren egoera fisiko-psikikoaren arabera, mendeko erabiltzaile gisa sailkatuko dira.

Egoiliarak beren egoera fisiko-psikikoaren arabera kalifikatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak adinduen ezintasun maila baloratzeko finkatu duen arautegia erabiliko da.

Hasiera batean, zerbitzurako eskaria egin duen pertsona zerbitzuan onartu aurretik sailkatuko da eta, gero, hasiera batean egindako sailkapen horretako arrazoiak aldatu egin direla uste denean. Erabiltzailearen sailkapen berriaren ondorioz hark ordaindu behar duen tasan aldaketarik sortzen bada, aldaketa atzeman den egunetik hasiko da tasa berriari dagokiona ordaintzen.

B) Otorduak.

Udal gizarte zerbitzuek txostena egin behar dute.

4. Tasaren zenbatekoa

A) Eguneko banakako atentzioa.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikarako Departamentuak erabakiko du, ebazpen administratibo baten bidez, erabiltzaile bakoitzak ordaindu behar duen zenbatekoa.

B) Otorduak: mantentzen dira

1. Gosaria: 1,76 euro

2. Bazkaria: 3,78 euro

3. Merienda: 1,36 euro

4. Afaria: 2,52 euro

5. Ordaindu beharra dutenak.

Ordenantza honetan finkatu diren zenbatekoak ordaindu beharra dauzkate bertan aipatzen diren zerbitzuak jasotzen dituzten guztiek.

6. Galdagarritasuna.

Oro har, ordaintzeko obligazioa dutenei galdatuko zaie egonaldiari dagokion tasaren zenbatekoa, hilabete bakoitzaren lehen egunetik edo, hala dagokionean, egoiliarra zerbitzua jasotzen hasi den lehen egunetik. Tasa Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeak agintzen duenaren arabera ordainduko da. Hala ere, arau horrek ez du adierazten kobratu beharrekoa oso-osorik edo zati batean aurreratzea edo aurretiaz gordailuan uztea eskatu ezin denik.

7. Kudeatzea, likidatzea eta kobratzea.

Eranskin honetan arautzen diren tasak urteko hilabete bakoitzaren amaieran likidatu eta kobratuko dira. Tasa horiek ordaintzeko modua tasa kobratzeko eskuduntza duen organismoak erabakiko du.

15.4.- Zaharren egoitzako ekitaldi aretoaren erabilera.

A. Arrazoibidea

1. artikulua.- Araudi honek Sandiusterri ekitaldi aretoaren kudeaketa eta aretoaren erabilera aldi baterako uzteagatik kobratuko diren tasak erregulatuko ditu, bertan jarduera eta ekitaldiak antolatzen direnerako.

Instalazioak aldi baterako erabiltzeko, baimena behar da eta baimena jasotzeko eskaera idatzia aurkeztu behar du jarduera bat edo ekitaldiren bat antolatu nahi duen pertsona fisiko edo juridikoak.

Jarduerak hasteko eguna baino 30 lanegun lehenago aurkeztu behar zaio eskaera Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeari, horrek ondoko paragrafoetan ezarritakoaren arabera erabakia har dezan.

Eskaerak Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeko lehendakariari bidali behar zaizkio, betiere I. eranskineko ereduaren arabera.

Ekitaldi aretoa modu egokian erabili ez delako sortutako kalteak konpontzeko, garbitzeko, eta abarretako gastu guztiak aretoa erabiltzeko baimena jaso zuen pertsona fisiko edo juridikoari egotziko zaizkio.

2. artikulua.- Erabiltzea baimendu den une berean erabilera ordaindu beharra sortuko da. Nolanahi ere, baimenaren tasa Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen izenean gordailutu behar da, baimena eman baino gutxienez bi egun lehenago.

3. artikulua.- Interesatuak uko egin ahal izango dio erabilerari, ekitaldirako ezarritako data baino hogeita lau ordu lehenago jakinarazten badu; holakoetan, ordaindutako tasaren %50 itzuliko zaio. Ordaindutako tasa oso-osorik itzuliko da, baimendutako instalazioak ezin direnean erabili Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeagatik.

B. Ordaindu beharra dutenak

4. artikulua.- 1. Tasa ordaindu beharra du Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeak Sandiusterri ekitaldi aretoa erabiltzeko baimena eman dion edozein pertsona fisiko edo juridikok.

2. Ez dute tasa ordaindu beharrik, Hernaniko elkarteen udal erroldan izena emandako entitateek, baldin eta beren jarduerak herriarentzat antolatzen badituzte.

4. Tasaren eta erabiltzailearen ekarpena

a) Tasa

A. Lanegunak: Astelehenetik ostiralera: Gipuzkoako Foru Aldundiak 2017. urterako finkatzen duen tasa.

B. Asteburu eta jaiegunak: Gipuzkoako Foru Aldundiak 2017. urterako finkatzen duen tasa.

C. Erabiltzea

5. artikulua.- Honako hauek errespetatu beharreko gutxiengo arauak dira:

1) Ekitaldi aretoan antolatuko diren jarduera guztiak aldeztu aurretik erregistratutakoak izan behar dira. Jarduera antolatu eta eskaera sinatu duen koordinatzailea arduratuko da ekitaldi aretoan antolatzen den jardueraz. Ondorioz, bere ardura izango da antolakuntzaren garapenean gerta daitezkeen kalte, apurketa, haustura, zikin gehiegikeria, eta abarri erantzutea.

2) ERABAT DEBEKATUTA dago ekitaldi aretoan edonolako janari eta edariak sartzea. Debeekatuta daude, berebat, gozokiak, txutxeak eta holakoak. Debeekatutako dago ekitaldi aretoan erretzea.

3) Errespetuz zainduko dira altzariak, eta eserleku, eskailera, eta abarri erabilera egokia eta bidezkoa emango zaie. Era berean, lekua garbi zainduko da, eta lurrera ez da paperik botako. Koordinatzaileek hori guztia adieraziko die ikasleei.

4) Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeak kontratatuko dituen profesionalak baino ez dute erabiliko ekitaldi arteko ikus-entzunezko material elektronikoa.

5) Aretoran izan daitezkeen edozein gertakizunen berri emango zaio ekitaldi areto arduradunari.

6) Ekitaldi aretoaren erabilera gehien-gehien 24:00etan bukatuko da.

6. artikulua.- Jaieguntzat joko dira Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeak honetako udal langileen laneko egutegian jaiegun gisa zehaztuta daudenak.

D. Tarifak (horrela gelditu dira)

I. epigrafea.- Ekitaldi aretoa erabiltzea ikus-entzunezko materialik gabe: salbuetsita.

II.epigrafea.- Ekitaldi aretoa erabiltzea ikus-entzunezko materialarekin: 38,72€/ordu

50 euroko fidantza jarriko da, instalazioak modu egokian erabiliko direla ziurtatzeko.

Fidantza hori Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen bulegoetan utziko da, ikuskizuna edo ekitaldia hasi aurretik. Fidantza hori gauzatzeko legeak xedatzen duen edozein bide erabili ahal izango da.

Fidantza Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen kudeatzaileak aldeztu aurretik itzultzearen alde egindako txostenaz itzuliko da, betiere zor guztiak kitatu ondoren.

15.5.- Etxez- etxeko laguntza zerbitzua.

Urriaren 18ko 5/1996 Legeak, gizarte zerbitzuak arautzen dituenak, besteak beste, honako helburua zuen: gizarte zerbitzuen alorrean Eusko Jaurlaritzari, foru aldundiei eta udalei dagozkien erantzukizunak zehaztea. Helburu hura uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuaren (gizarte zerbitzuen alorreko erantzukizunak zehazten dituenak) bidez lortu da, dekretu horren artikuluetan zehazten baitira xehetasun osoz gizarte zerbitzuen sisteman erantzukizunak dituzten administrazio bakoitzari dagozkion erantzukizunak.

Hala, aipatutako dekretu horretako 3. artikuluan xedatzen denez, foru aldundiei dagokie ezindutzat sailkatutako pertsona adinuentzako zentroak eta zerbitzuak antolatuko direla bermatzea.

Artikulu horretan xedatzen denaren karian, 2005eko azaroaren 3an, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta EUDELeK –Euskal Udalen Elkartea– elkarren arteko lankidetzarako akordio bat sinatu zuten, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren baldintzak eta betebeharrak zehazteko.

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeko zuzendaritza batzordeak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzeta hitzarmen bat egitea onartu zuen 2005eko azaroaren 9an. Hitzarmen horren bidez herritar ezinduentzako Etxez etxeko laguntza zerbitzua kudeatzeko ardura bereganatu zuen Patronatuak.

5/1996ko Legeko 5. artikuluan xedatzen denez, gizarte zerbitzuak eskaintzeko sistemak, gutxienez eta besteak beste elkarbizitza bermatzeko behar diren zerbitzu edo programak antolatuko ditu. Eta horiek gauzatzeko, premia duenari etxean bertan laguntzeko baliabideak jarriko dira edo lojamendua emango zaio.

« Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundea»k badu Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua, eta horrek arreta integrala ematen die pertsona adinduei eta oro har premia duten guztiei beren etxeetan, betiere familiako giroan mantenduz eta ohikoa duten bizitza ziurtatuz.

Hori dela eta, era honetara arautuko da Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua:

1. Xedea.

Ordenantza honen xedea da, Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuari dagokion tasa antolatzea, kudeatzea eta likidatzea.

Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua erregulatzen duen araudian aurreikusitakoaren arabera emango da Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua.

2. Zerbitzuko erabiltzaile izango direnak zehaztea.

1.-Etxez etxeko laguntza zerbitzua, alde batetik, pertsona gaituentzat antolatzen da udalaren eskuduntzen bidez, eta bestetik, pertsona ezinduentzat Gipuzkoako Foru Aldundiarekin egindako hitzarmenen bidez.

2.-Jite orokorrez, zerbitzu honetako erabiltzaileen profila bat dator laguntza zerbitzu baten aldi bateko edo betiko eskuartzea behar duten pertsona eta/edo familien profilarekin. Laguntza zerbitzu hori ohiz eguneroko bizitzan funtsezkoak diren jardueretarako izaten da, hala nola erabiltzailea bere ohiko bizilekuan bizitzen jarraitu ahal izateko.

3.- Jite bereziz, honakoak izan daitezke etxez etxeko laguntza zerbitzuko erabiltzaileak:

Hirurogei urtetik gorakoak, betiere bere buruaz kargutzeko ezintasuna dutenean.

Ezintasunen bat edo minusbaliotasunen bat dutelarik, bere buruaz kargutzeko ezintasuna dutenak.

Adin txikikoak, beren familiakoek ezin dietenean behar duten zaintza ez arretarik eman.

Familia osoak edo pertsonak, baldin eta karga handiegia badute, elkarrekin haserrean bizi badira, gizartean arazoak badituzte edota gaixotasun fisiko edo psikikoak badituzte.

Eskaera giza talde osoarentzat egiten denean, horretako kide bakoitzak bete behar ditu zerbitzua jasotzeko eskakizunak. Zerbitzuaren titular bat izendatuko da, eta hori izango da talde osoaren ordezkaria. Gertatuko balitz hori hil egin dela, ospitaleratu edota beste etxeren batera joan, taldeko besteren batek hartuko du talde osoaren tutoretza edo ordezkaritza.

Tutorea aldatzeak taldearen premia, egoera sozio-familiarra eta egoera ekonomikoa berriro baloratu beharra dakar.

3.- Diru sarrerak nola zehaztu eta kalkulatu.

Erabiltzailearen diru ahalmena kalkulatzeko honako elementuak izango dira kontuan: errenta, ondarea eta zerbitzua jasoko dutenen kopurua.

1. Errentatzat joko dira zerbitzuko onuradunaren edo onuradunen diru sarrera neto guztiak, betiere honakoen ondoriozkoak direnean:

—Laneko errendimenduak, pentsioak eta aurreikuspen sozialeko prestazioak barne, edozein erregimenekoak izanik ere.

—Kapital higigarriaren eta higiezinaren etekinak.

—Enpresari jardueren edo jarduera profesionalaren etekinak.

2. Ondareztat jotzen da onuradunaren kapital higigarri eta higiezin guztia. Kapital hori kalkulatzeko eskaera egin aurreko lau urteetan izandako ondarearen balioa izango da kontuan.

—Kapital higigarritzat jotzen dira: kontu korronteak, epekako aurrezpenak, inbertsio fondoak eta pentsio fondoak, balio higigarriak, bizi aseguruak eta aldi bateko eta biziarteko errentak, artea, antigoalak eta balioen bat duten gauzak.

—Kapital higieztzat jotzen dira landatar edo hiritar izaerako ondasun guztiak.

Unitate konbentzionaltzat jotzen da ohiko etxebizitzan bizi diren pertsona guztiek osatzen dutena.

3. Disposizio libreko zenbatekoa

Disposizio libreko zenbatekotzat joko da EAEAPren %120. Unitate familiarra edo konbentzionala osatzen duten kideak bat baino gehiago direnean, zenbateko horri EAEAPren %40 gehituko zaio bigarren kideagatik eta %30, unitate familiarreko gainontzeko kide bakoitzarengatik.

4. Tasaren eta erabiltzaileen ekarpena.

a) Tasa.

A.-Lanegunak: astelehenetik ostiralera: Gipuzkoako Foru Aldundiak 2017 urterako finkatzen duen tasa.

B.- Asteburu eta jaiegunak: Gipuzkoako Foru Aldundiak 2017 urterako finkatzen duena.

Berdina mantentzen da

b) Ezarritako ordu-prezioagatik onuradunak ordaindu behar duenaren kalkulua:

1. Onuradun batek duen ondare per capitak (ohiko etxebizitza kontuan hartu gabe. Ohiko etxebizitzat jotzen da, erabiltzailearen titularitatekoa izanik, bere ohiko bizitegitzat agertzen dena) 31.042,28 eurori Euskal Autonomia Erkidegoko KPIak 2005eko abenduaren 31ra arte izan duen gehikuntza (gehikuntza horren zenbatekoa Euskal Autonomia Erkidegoko KPIaren arabera eguneratuko da) gehituz ateratzen dena gainditzen badu, gainditutako

zatiak kitatu beharko du ezarritako ordu-prezioari dagokiona. Ondarea kalkulaturako errenta baino txikiagoa denean, 2. idatz-zatian ezarritako prozedura erabiliko da.

Ondare per capita era honetara kalkulatu da, betiere zerbitzu mota kontuan izanik:

—Etxeko laguntza zerbitzua eta zerbitzu mistoa (etxeko laguntza + laguntza pertsonala).

Familia unitateko kideen kapital higiezinaren eta higigarrien per capita.

—Laguntza pertsonaleko zerbitzua. Zerbitzuko onuradunaren kapital higigarria eta higiezina. Ezkondu eta egitateko elkarrean kasuan bikote kide bakoitzaren ondarearen batuketa egingo da eta batura bitan banatuko, eta zatidura izango da kontuan.

2. Onuradunak, edo onuradunek, bere errentaren arabera eta ondoren zehaztuko den baremoaren arabera ordainduko du.

Errenta era honetara kalkulatu da, betiere zerbitzu mota kontuan izanik:

—Etxeko laguntza zerbitzua eta zerbitzu mistoa (etxeko laguntza + laguntza pertsonala). Unitate familiarreko kide guztiek dituzten diru sarreraren netoak batuta.

—Laguntza pertsonaleko zerbitzua, onuradunaren diru sarreraren netoak. Ezkondu eta egitateko elkarrean kasuan bikote kide bakoitzaren ondarearen batuketa egingo da eta batura bitan banatuko, eta zatidura izango da kontuan.

c) Erabiltzaileak ordaindu behar duen zenbatekoa kalkulatzea

Ondoko taulan zehazten da zerbitzuaren kostuari buruz erabiltzaileak bere diru sarreraren arabera zerbitzuagatik ordaindu behar duena:

	Sarrerak
1,50%	Hasta 110% IPREM
4,00%	111 – 115% IPREM
8,00%	116 – 125% IPREM
15,00%	126 – 150% IPREM
24,00%	151 – 175% IPREM
35,00%	176 – 200% IPREM
48,00%	201 – 225% IPREM
61,00%	226 – 250% IPREM
74,00%	251 – 275% IPREM



87,00%	276 - 300% IPREM
100,00%	>300% IPREM

Ondoren erabiltzaileak hilero zenbatekoa ordaindu behar duen kalkulatu da aurreikusitako SAD orduen arabera eta disposizio librerako bermatutako zenbatekoa aplikatuko da.

Aurreko pasartean zehaztu denaz egindako operazioak disposizio librerako zenbatekoa ez badu bermatzen, taulan hurrengo datoren diru sarrera txikiagoko tarteari dagokion ehunekoa aplikatuko da. Holaxe jokatuko da, harik eta disposizio librerako zenbatekoa bermatzea lortu arte.

Nolanahi ere, erabiltzaileak gutxienez ere SAD orduaren %1,5 ordaindu behar du.

d) Zerbitzu askotako erabiltzailea

Zerbitzu honetako erabiltzailea beste zerbitzuren bateko erabiltzailea ere badenean, era honetara kalkulatu da erabiltzaile horrek zerbitzu horrengatik ordaindu behar duena:

—Pertsona gaituentzako etxebizitza alternatiboak: lehendabizi, erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa kalkulatu da etxebizitza alternatiboei (apartamentu sozialak, etxebizitza komunitarioak...) dagokien ekarpen baremoaren arabera; ondoren, onuradunak erabiltzen duen etxebizitzari dagokion ekarpena bere diru sarreratik kendu eta gero gelditzen zaion diru ahalmena baloratuko da, SAD orduengatik ordaindu behar duena kalkulatzeko.

—Eguneko zentroa eta gainontzeko zerbitzuak: erabiltzaileari bere diru sarreratik kenduko zaio eguneko zentroagatik edota erabiltzen duen zerbitzuagatik ordaindu behar duena.

5. Ordaintzeko obligazioa dutenak.

Jasotako zerbitzuagatik edo zerbitzuan egindako erreserbagatik aurreko paragrafoetan zehaztu diren zenbatekoak ordaintzeko obligazioa dute zerbitzua erabiltzen edota jasotzen dutenek.

6. Galdagarritasuna.

Izaera orokorrean, kalkulatu den tasaren zenbatekoa hilabete bakoitzaren lehen egunetik exijitu ahal izango zaio ordaintzeko obligazioa duenari, edota lehen zerbitzua erabili den egunetik. " Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundea"ri dagokio ordainketa horiek eskatzeko arduradunak izendatzea, baita zenbateko bat osorik edo partzialki aurreratzeko edo deposituan uzteko eskatzea ere.

7. Kudeaketa, likidazioa eta kobrantza.

Ordenantza honetan erregulatzen diren tasak likidatzea eta kobratzea hilabetearen amaieran egingo da. Ordaintzeko modua erakunde eskudunak erabakiko du.

Zerbitzuko onuradunak edo hartzaileak ez direnek zerbitzuak erabiltzen badituzte, erabilitako une berean ordainduko dute zerbitzua.

15.6. Gizarte izaerako etxebizitza zerbitzua.

Indargabetua

15.7.- Gizarte alojamenduaren zerbitzua.-** 74 zk.GAO. 2011ko apirilaren 18a

Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak (abenduaren 5eko 12/2008 Legeak) honako helburu hauek ditu, besteak beste: gizarte zerbitzuen alorrean Eusko Jaurlaritzari, foru aldundiei eta udalei dagozkien eskumenak zehaztea. Legeak zehatz-mehatz zerrendatzen ditu gizarte-zerbitzuen sistemaren arduradun diren administrazioei dagozkien prestazioen katalogoa eta kartera.

Aipatutako legearen 22. artikulua Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa ezartzen du. Eta artikuluan horren 1.9 puntuan lojamendu zerbitzuak zerrendatzen dira: harrerako etxebizitza, tutoretzapeko etxebizitza, tutoretzapeko apartamentua eta etxebizitza komunitarioa. Legearen 27a) artikulua ezartzen du udalen gizarte-zerbitzuei dagokiela lojamendu zerbitzuak eskaintzea eta betetzea.

Gizarte-Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 42. artikuluan babesean, tasak lege horren 57.3 artikuluan xedatutakoaren arabera finkatzen dira. Erabiltzaileek Ordenantza Fiskal hau aplikatuz parte hartuko dute Udalaren Lojamendu Zerbitzuaren finantzaketan, zerbitzu hau arautzen duen ordenantza kontuan hartuta.

Horiek horrela, Gizarte Lojamenduaren Zerbitzuaren tasa honela arautuko da:

1.- Helburua

Eranskin honen helburua da erabiltzaileek jasotako zerbitzuengatik ordaindu beharreko Gizarte Lojamenduaren Zerbitzuaren tasaren antolamendua, kudeaketa eta likidazioa arautzea.

2. Kontzeptua.

Erabiltzaileei emandako zerbitzutzat jotzen da Gizarte Lojamenduaren Zerbitzuaren edozein baliabide erabiltzea; tutoretzapeko apartamentuak, tutoretzapeko etxebizitzak eta harrerako etxebizitzak.

3. Gizarte alojamenduaren zerbitzuaren erabiltzaileak.

Eranskin hau aplikatzeko Gizarte Lojamenduaren Zerbitzuaren erabiltzaileak kasuan-kasuan erabiltzen duten baliabidearen arabera kalifikatuko dira, hala nola:

- 1.- Tutoretzapeko apartamentua.
- 2.- Tutoretzapeko etxebizitza.
- 3.- Tutoretzapeko etxebizitza partekatua.
- 4.- Harrerako etxebizitza.

4. Diru- sarreraren kalkulua zehaztea.

Erabiltzaileek kasuan-kasuan erabiltzen duten baliabidea finantzatzeko ordainduko duten kopurua behean adierazten diren prozeduraren eta irizpideen arabera zehaztuko da.

Hau konputatuko da: pertsonaren edo bizikidetzaren unitatearen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpenaren edo aitorpenen zerga-oinarria.

Errentaren gaineko Zergaren aitorpena Euskal Autonomi Erkidegoan aurkezteko obligaziorik ez duten pertsonen kasuan, kontzeptu guztiengatik egiaztatutako diru-sarrera gordinen %100 hartuko da kontuan.

Hau jotzen da bizikidetza unitatetzat: bi pertsonen arteko elkarketa, dela ezkontza bidezkoa edo dela ezkontzaren pareko harreman bidezkoa, etxe berean bizi direnak edo biziko direnak. Baita ere adopzio bidezko edo odolkidetasun bidezko elkarketa, hirugarren gradura arte, eta ezkontza bidezko senidetasun bidezkoa, bigarren gradura arte. Alabaina, ez da bizikidetza unitatetzat hartzen elkarbizitza adiskidetasunez edo onura bilatu nahian egiten bada. Zuzendaritza batzordeak kasu bakoitza aztertuko du, bizikidetza unitatearen osaera eta diru-sarrerak zein diren zehazteko.

Pertsonaren edo bizikidetza unitatearen diru-sarrera gisa konputatuko dira hura osatzen duten kideetako edozeinek honako kontzeptu hauengatik lortutakoak:

- Besteren kontura egindako lanarengatik lortutako diru-sarreretatik datozen etekin garbiak.
- Norbere kontura egindako lanarengatik lortutako diru-sarreretatik datozen etekin garbiak.
- Edozein motako pentsio edota subsidioren diru-sarrera garbiak. Diru-sarrera horien barruan sartuko dira edozein motatako diru-sarrera kontributibo nahiz ez kontributibo edo asistentzial, hala nola langabeziako laguntza, langabeziako subsidioa, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrerak eta antzeko beste batzuk.
- Ondasun higigarrietatik eta, oro har, edozein motako finantza aktibotatik datozen etekin garbiak.
- Landa nahiz hiri ondasun higiezinetatik datozen etekin garbiak. Hortik kanpo geratzen dira ohiko etxebizitza eta norbere konturako baliabideak sortarazten dituen ustiapenerako erabiltzen direnak.
- Konputua egite aldera diru-sarrera gisa hartuko dira kontuan azken bost urteetan senide nahiz beste pertsoneri eskualdatutako ondasunak.

Zerrendatutako kontzeptu desberdinak kalkulatzeko, oro har, haien urteko kopurua hartuko da abiapuntutzat, hilabetekoari dagokion baliokidea lortzeko.

Ez dira bizikidetza unitatearen diru-sarrera gisa konputatuko bizikidetza unitatea osatzen duten kideetako edozeinek honako kontzeptu hauengatik lortutakoak:

- Helburu zehatza duten eta aldizkakoak ez diren edo gizarte larrialdiko egoerak arintzeko diren gizarte laguntzetatik datozen diru-sarrerak. Hala direla agiri bidez justifikatu beharko da.
- Ohiko etxebizitza saltzearen ondoriozko diru-sarrerak, baldin eta helburu bera duen beste bat erosteko erabili badira.

Diru-sarrerak zehazteko eta kalkulatzeko dagozkion egiaztagirak aurkeztu beharko dira, Ogasunarenak, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarenak, finantza entitateenak edo beste edozein erakunderenak.

Honako irizpide hauek hartuko dira kontuan bananduen, dibortziatuen edo alargunen diru-sarrerak zehazteko, baldin eta egiaztatu beharreko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren deklarazioa edo deklarazioak edo, hala badagokio, diru-sarrerak ezkontza indarrean zegoeneko aldi bati badagozkio:

- Ezkontzaren erregimen ekonomikoa irabazpidezkoa baldin bada, ezkontideen diru-sarrearen %50 hartuko da kontuan.
- Erregimen ekonomikoa ondasun-banantzekoa baldin bada, eskatzaileari dagozkion diru-sarrerak bakarrik hartuko dira kontuan.

Jabetzan dituzten ondasun higiezinaren balorazioa katastroko balioaren gainean ehuneko biko kontabilizatuz egingo da.

Hilabeteari dagokion diru-sarrera baliokidea honela kalkulatu da: urte bati dagokion diru-sarrera guztiak biko eta zati 12 hilabete egin.

5. Zerbitzuaren erabiltzaileentzako tasa eta likidazioa

1.- Tutoretzapeko apartamentuak.

Tasa: baliabide honen erabiltzaileei hilabeteko diru-sarrera baliokidea zehaztuko zaie. Hilean ordaindu beharreko tasa hileko diru-sarrera baliokidearen %30 izango da, eta gutxienez 200,00 euro ordainduko dira.

Likidazioa eta ordainketa: zerbitzuaren erabiltzaileak.

2.- Tutoretzapeko etxebizitzak.

a) Zerbitzu honen erabiltzailea Hernanin erroldatuta dagoen kasuan

Tasa: baliabide honen erabiltzaileei hilabeteko diru-sarrera baliokidea zehaztuko zaie. Hilean ordaindu beharreko tasa hileko diru-sarrera baliokidearen %10 izango da, eta gutxienez 100,00 euro ordaindu beharko dute.

Likidazioa eta ordainketa: zerbitzuaren erabiltzailea.

b) Zerbitzu honen erabiltzailea Hernanin erroldatua ez dagoen kasuan

Tasa: Beste udalerrietako erabiltzaileek 150 euro hilean.

Likidazioa eta ordainketa: erabiltzailea erroldatuta dagoen udala.

3.- Tutoretzapeko etxebizitza partekatuak.

a) Zerbitzu honen erabiltzailea Hernanin erroldatuta dagoen kasuan

Tasa: baliabide honen erabiltzaileei hilabeteko diru-sarrera baliokidea zehaztuko zaie. Hilean ordaindu beharreko tasa hileko diru-sarrera baliokidearen %10 izango da, eta gutxienez 100,00 euro ordainduko dira.

Likidazioa eta ordainketa: zerbitzuaren erabiltzailea.

b) Zerbitzu honen erabiltzailea Hernanin erroldatua ez dagoen kasuan.

Tasa: Beste udalerrietako erabiltzaileek 150 euro hilean.

Likidazioa eta ordainketa: erabiltzailea erroldatuta dagoen udala.

4.- Harrerako etxebizitza.

a) Zerbitzu honen erabiltzailea Hernanin erroldatuta dagoen kasuan

Tasa: zerbitzu honen erabiltzaileek Hernanin erroldatuta baldin badaude ez dute tasarik ordaindu beharko.

Likidazioa eta ordainketa: ez dago likidaziorik.

b) Zerbitzu honen erabiltzailea Hernanin erroldatua ez dagoen kasuan

Tasa: 200 euro hilean.

Likidazioa eta ordainketa: erabiltzailea erroldatuta dagoen udala.

6.- Ordaintzera behartutakoak.

Zerbitzua erabiltzen edota jasotzen duten eta kontratuaren titular diren pertsonak jasotako zerbitzuagatik edo zerbitzuan egindako erreserbagatik aurreko ataletan zehaztu diren zenbatekoak ordaintzeko obligazioa dute.

7. Eskagarritasuna.

Oro har, kalkulatu den tasaren zenbatekoa hilabete bakoitzaren lehen egunetik eskatu ahal izango zaio ordaintzeko obligazioa duenari, edota lehen zerbitzua erabili den egunetik. Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeari dagokio ordainketa horiek eskatzeko arduradunak izendatzea, baita zenbateko bat osorik edo partzialki aurreratzeke edo deposituan uzteko eskatzea ere.

8. Kudeaketa, likidazioa eta kobrantza.

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen Zuzendaritza Batzordeari dagokio aplikatu beharreko tasak zein izango diren zehaztea eta, tasak aplikatzearen ondorioz erreklamaziorik baldin badago, haiek ebaztea.

Zerbitzuaren erabiltzaileak ordaindu beharreko tasa erreklamazioa egiteko hamar eguneko epea izango duelarik jakinaraziko zaio.

Ordenantza honetan arautzen diren tasak hilabetearen amaieran likidatu eta kobratuko dira. Ordaintzeko modua erakunde eskudunak erabakiko du.

9. Tasak eskuratzea.

Tasen zenbatekoak urtero-urtero eguneratuko dira.

10. Hobaria.

Erabiltzailearen urteko diru-sarrera gordinak 8.979,60 euro baino gutxiago baldin badira, Zuzendaritza Batzordeak kasu bakoitzari aplikatuko dio txosten sozialaren arabera.

ERANSKINA

16.- "HERNANIKO UDAL KIROIDEGIKO ZERBITZUAK ERABILTZEA

a) Kiroldegian hamabi hilabetez abonaturakoen kuotak		EURO
Familiarra		230,00
Banakakoa		152,00
Adintxikikoa		95,35
Kirolari federatua		18,30

b) Kiroldegian sei hilabetez abonaturakoen kuotak		EURO
Familiarra		149,30
Banakakoa		98,70
Adintxikikoa		62,00

c) Kanpoko kirol instalazioen erabilpen kuota (hitzarmena)		EURO
Kirolari federatua		18,30

d) Erabiltzaileentzako zerbitzuak (Abonatuak)		EURO
Sauna, saio 1		3,54
Sauna, 5 saio		15,76
Sauna, 10 saio		27,98
Squasha, saio 1		4,95
Squasha, 5 saio		20,30
Squasha, 10 saio		35,25
Pilotalekua, ordu 1		11,21
Pilotalekuko argia, ordu 1		6,06
1. pista		38,38

2. pista	32,83
Igerilekuko kale 1	32,83
Kaiolako giltza puskatzea	79,29
Takilako giltza galtzea edo puskatzea	4,95
Karneta galtzea edo puskatzea	3,23

e) Erabiltzaileentzako zerbitzuak (Abonu gabekoak)	EURO
Adintxikikoak sarrera	3,65
Adindunaren sarrera	5,70
Sauna, saio 1	3,55
Squasha, saio 1	4,95
Pilotalekua, ordu 1	11,20
Pilotalekuko argia, ordu 1	
1. pista	6,05
2. pista	38,40
Igerilekuko kale 1	32,85
Kaiolako giltza puskatzea	32,85
Takilako giltza galtzea edo puskatzea	79,30
Karneta galtzea edo puskatzea	4,95
	3,25

f) Igeriketa gaiak	EURO
Ehunezko bainu-txanoak	2,95
Silikonazko bainu txanoa	4,35

g) Kiroldegiko instalazioak alokatzeko prezioak: ikuskizunetarako, kirolazkanpoko emanaldietarako edo maila profesionaleko kirol ekialdetarako: Pilotalekua edo kirol pista ordu bakoitzeko	
Astegunetan, 22:00ak arte	97,35
Astegunetan, 22:00etatik 06:00 arte	150,70
Igande edo jaiegunetan 22:00 arte	110,20
Igande edo jaiegunetan, 22:00etatik 06:00 arte	168,35
Aparteko orduak	224,10
Fidantza	1.808,10

- Alokatzeko eskaria egiterakoan hitzartutako orduak baino gehiago irauten badu ekitaldiak, ordu bakoitzarengatik edo gaingidutako ordu-zatiengatik 224,10 € ordaindu behar du antolatzaileak.
- Antolatutako ikuskizunetan, kirolez kanpoko ekintzetan edo kirol ekintzak profesionaletan, publizitatearengatik, irudi-eskubideengatik edo sarrera salmentarengatik diru-sarrerarik balego, bildutako diru-kopuruaren %10 ordaindu behar da.
- Pilotalekua edo instalazioak behar bezala erabiliko direla bermatzeko 1.808,10 €tako fidantza ordaindu behar da.
- Fidantza hori udal kiroldegiko bulegoetan ordaindu behar da, dena delako ikuskizuna edo ekintza egin baino lehen, legeak agindutako eran
- Ordaindu beharreko guztiak ordaindu eta kirol zuzendariaren aldeko txostena jaso ondoren itzuliko da fidantza.
- Irabazi asmorik gabeko elkarteek eskatzen edo antolatzen dituzten ekitaldietan, ekitaldi hutsak irauten duten denbora baino ez dute ordaindu behariko antolatzaileek: esan nahi da tarifak ez diola ukituko ekitaldi antolatu ahal izateko behar den muntatze edo desmuntatze denborari.

2017ko ekainaren 1etik aurrera

a) Kiroldegian abonaturatutakoek eta Astigarragakoek uda garaiko Hernaniko Udal Jolas Igerilekua erabiltzeagatik ordaindu beharreko gehigarria

Familiarra	72,80 €
Banakakoa	48,10 €
Adintxikikoa	31,80 €

b) Udako denboraldiko abonua Hernaniko Udal Jolas Igerilekuan

Familiarra	144,60 €
Banakakoa	95,20 €
Adintxikikoa	57,80 €

c) Hernaniko Udal Jolas Igerilekuko erabiltzeentzako sarrerak

18 urtez behekoa	5,10 €
18 urtez behekoa 17:30etik aurrera	2,60 €
18 urtez gorakoa	7,40 €
18 urtez gorakoa 17:30etik aurrera	3,70 €
3 urtez behekoa	2,50 €
3 urtez behekoa 17:30etik aurrera	1,20 €
6 hilabetez behekoa	0,00 €

e) Umeen taldeentzako sarrerak, Hernaniko Udal Jolas Igerilekuan 10 haur sartzen diren bakoitzeko, begirale bat dohain

Haur kopurua taldean	Abonu gabekoak
11 - 20	4,80 €
21 - 40	4,60 €
41 - 80	4,40 €

--	--

81etatik aurrera-	4,20 €
-------------------	--------

f) Abonatuentzako ikastaroak:

Hilabetekoak: 2017ko irailtik 2018ko abuztura	
Jaiaberrientzako igeriketa, astean 2 egun	49,30 €
3-4 urte bitarteko haurrentzako igeriketa, astean 3 egun	90,70 €
3-4 urte bitarteko haurrentzako igeriketa, astean 2 egun	60,50 €
3-4 urte bitarteko haurrentzako igeriketa, astean 1 egun	30,20 €
5 urtetik gorako hasiberrientzako igeriketa, astean 5 egun	78,70 €
5 urtetik gorako hasiberrientzako igeriketa, astean 3 egun	48,10 €
5 urtetik gorako hasiberrientzako igeriketa, astean 2 egun	32,20 €
Hastapena (helduak), astean 5 egun	79,30 €
Haurdunak igeriketa	49,30 €
Bizkarrezurreko arazoak dituztenentzat	49,30 €

10 hilabetekoak : 2017ko irailtik 2018ko ekainera	
Ur-ekintzak eta igeriketa eskola, astean 2 egun	246,00 €
Ur ekintzak, astean 1 egun	123,00 €
Mantentze ig. eta Aqua-gyma ,astean 3 egun	363,00 €
Mantentze ig. eta Aqua-gyma ,astean 2egun	246,00 €
Astean 150 minutu fitness	321,00 €
Astean 100 minutu fitness	216,00 €

Astean 50 minutu fitness	106,00 €
Indoor walking-a, B. Training-a, konbinatua, Pilatesa. (2 egun)	357,00 €
Indoor walking-a, B. Training-a, konbinatua, Pilatesa. (egun 1)	183,00 €
3. adina	59,00 €

Oharra: Igeritako ikastaroak Kiroldagiko igerilekuetako obraren arabera baldintzatuta egongo dira

g) Abonatu gabeentzako hileroko ikastaroak:

Hilabetekoak: 2017ko irailtik 2018ko abuztura	
Jaioberrientzako igeriketa, astean 2 egun	81,40 €
3-4 urte bitarteko haur. igeriketa, astean 2 egun	149,10 €
3-4 urte bitarteko haur. igeriketa, astean 3 egun	99,80 €
3-4 urte bitarteko haur. igeriketa astean 1 egun	49,80 €
5 urtetik gorako hasib. igeriketa, astean 5 egun	129,90 €
5 urtetik gorako hasib. igeriketa, astean 3 egun	79,40 €
5 urtetik gorako hasib. igeriketa, astean 2 egun	53,10 €
Hastapena (helduak)	130,00 €
Haurdunak igeriketa	81,40 €
Bizkarrezurreko arazoak dutenentzat	81,40 €

Oharra: Igeritako ikastaroak Kiroldagiko igerilekuetako obraren arabera baldintzatuta egongo dira

Besterik

Muskulazio programa	11,90 €
Muskulazio programaren kontrola	5,90 €

Ikastaro horietako edozeinen iraupena luzatuko balitz, edota jarduera hasteko eguna baino hilabete beranduago hasiko balitz, izena emateko tasagatik ordaindu beharrekoa ikastaro osoagatik ordaindu beharreko tasaren zati proportzionala izango da.

h) Udako jarduerak (Uztaila eta abuztua)

Aerobika, Ziklo indoor, eta abar 3 egun	32,10 €
I. walking-a, pilatesa, body training-a, tenisa 3 egun	53,90 €
I. walking-a, pilatesa, body training-a, tenisa 2 egun	35,90 €

l) Tarifak aplikatzeko arauak

1.- Zerga-onurak

Kiroldegiko abonatuaren kuotetan ordenantzako 7. artikuluko 2. paragrafoko a) idatz-zatian xedatzen diren onurak aplikatuko dira.

2.- Abonoen ordainketa

Kiroldegiko abonoak izen ematea egiterakoan ordainduko dira, kreditu txartel bidez edo dagokion diru kopurua Hernaniko Udalaren dauden kontu korranteetan sartuz. Abonoak 6 edo 12 hilabetetarako izango dira, dagokion kuota ordaintzen denetik aurrera.

Abonoen ordainketa helbideratu ere egin ahal izango da. Abonoa ordaintzeko modu hau aukeratuz gero ulertzen da abonoa beste epe berdin baterako automatikoki berrituko dela, bazkideak espresuki baja eman nahi duela adierazten ez badu.

Hamabi hilabeteko abonuen kuotak bi edo lau ordainketatan zatitu ahal izango dira, helbideratuz gero bakarrik. Zati bakoitza 6 edo 3 hilabetero fakturatuko da, hurrenez hurren. Abonuaren iraupenaldia urte naturaletik gorakoa baldin bada, hurrengo urtearen epe edo zatiak ekitaldi horretarako ezarritako kuoten prezioak kontuan hartuta kalkulatuko dira.

Bazkideek pilotalekua, squasha eta kirol anitzetako pistak doan erabili ahal izango dituzte, libre baldin badaude, eta alokairu edo erreserba bidez norbaitek erabili behar dituen arte.

Kirolari kuotaren barruan sartzen diren bazkideek Kirol Delegatuak onartutako egun eta orduetan bakarrik erabili ahal izango dituzte Udal Kiroldegiko instalazioak.

m) Tarifak aplikatzeko araua:

1.- Ikastaroetan izena ematea

Ikastaroetan izena ematea era honetara ordaindu behar da:

Hilabeteko ikastaroak :

Kuotaren %100 ordaindu behar da izena ematerakoan. Ordainketak Udalaren kontu korrantean egin behar dira, eta ordainagiriak kiroldegiko bulegoetan aurkeztu behar dira. Ordainketak kreditu-txartelarekin ere egin daitezke.

Iraupen luzeko ikastaroak:

3-4 urtekoentzako igeriketa ikastaroak: Ikastaroaren kuotaren %50, izena ematean; ordainketa Udalaren edozein kontu korrontetan egin eta ordainagiria aurkeztu behar da, edota kreditu-txartelaz egin.

Kuotaren gainerakoa, %50, ikastaroaren bigarren hilean, aurrean aipatu den moduan

Gainerako ikastaroak (iraila-ekaina; urria-ekaina):

Iraupen luzeko ikastaroen kuotak modu hauetan ordain daitezke:

Ordainketa bakarra: kuotaren %100 izena ematean ordainduko da. Ordainketa dagokion zenbatekoa Udalaren kontuetan sartuz egingo da, gero horren ordainagiria aurkeztu beharko delarik, edo kreditu txartelaren bidez.

Izena behin jarduera hasita ematen denean dagokion parte proportzionala ordainduko da, altaren dataren arabera. Horretarako, lehenengo hilabeteko kuota kalkulatzeko hilabete osokotzat hartuko dira 1etik 15era egindako izen-emateak eta hilabete erdikotzat 16tik 31ra egindakoak.

Zatikako ordainketa: Oro har, ikastaro guztietarako ordainketa bankuan edo aurrezki kutxan helbideratuz egingo da. Kuota bost zatitan ordainduko da, bakoitza ikastaroaren kuota osoaren %20koa. Lehenengo hiru zatiak abenduaren 31 baino lehen fakturatuko dira eta gainontzeko biak hurrengo urteko martxoaren 31 baino lehen.

Izena behin jarduera hasita ematen denean, kuota zatitu ahal izango da jarduera fakturatzeko geratzen diren zatietan. Zati bakoitzaren zenbatekoa talde osoarentzat ezarrita dagoena izango da, lehenengo izan ezik, honetan alta-dataren arabera ordainduko baita dagokion zatia, kontuan izanda

lehenengo hilabeteko kuota kalkulatzeko hilabete osokotzat hartuko direla 1etik 15era egindako izen-emateak eta hilabete erdikotzat 16tik 31ra egindakoak.

Pilates, Indoor-Wolkin, Body-Training, GAP-Bosu, Konbinatu eta honelakoetan, kobrantza jarduerak irauten duen hilabete kopuruan zatituko da, kontuan izanda lehenengo hilabeteko kuota kalkulatzeko hilabete osokotzat hartuko direla 1etik 15era egindako izen-emateak eta hilabete erdikotzat 16tik 31ra egindakoak.

Iraupen luzeko ikastaroetan izena ematea, ordaintzeko aukeratu den bidea edozein izanda ere, ikastaro osorako dela ulertuko da eta, ondorioz, ordainketa-zati guztiak ordaindu behar dira, ikastarora joan ala ez kontuan izan gabe.

Zatiren bat ez ordaintzeak hori kobratzeko espedientea irekitzea ekarriko du. Espedientea irekitzen denetik eta amaitzen den arte, abonatuak eskubide guztiak galduko ditu.

2.- Itzulketak - Bajak

Kiroldegiko abonatuak: Abonua indargabetzen denean, ez da dirurik itzuli edo konpentsatuko. Abonua indargabetzea Udal Kiroldegiaren arrazoiz gertatu denean baino ez da itzuliko edo konpentsatuko ordaindutakoa.

Hilabeteko ikastaroak: Behin ikastaroa hasita ezin izango da baja eskatu eta dagokion dirua itzuli.

Izen-ematearen %100 itzuliko da, baja eta itzulketa ikastaroaren hasiera baino lehen istripuagatik edo gaixotasunagatik eskatzen denean, horretarako ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Iraupen luzeko ikastaroak: Jarduera hasi eta astebetara ezin izango da eskatu ez bajarik, ez ordaindutako diru kopuruen itzulketarik.

Hala eta guztiz ere, ikastaroetan izena eman dutenek, lehen aipatutako epea igarota eta urte bereko abenduaren 31n egun arte, ikastaroan baja eskatu ahal izango dute idatziz eta hau onetsia edo ezetsia izango da. Kirol Delegatuak erantzuna emango du ebazpenaren bidez, aurkeztutako arrazoiak baloratu eta gero.

Udalak eskatzaileari eskatu ahal izango dio bere ustez beharrezkoa den dokumentazio guztia, baja eskatzearen arrazoiak justifikatzeko.

Ikastaro osoa edo zatia indargabetzea ikastaroa antolatu duenaren arrazoiz gertatzen bada, izena emateagatik ordaindutakoa ikastaroa eten denetik gelditzen den denboraren proportzioan itzuliko da.

ERANSKINA

17.-POTENZIALKI ARRISKUTSUAK DIREN ANIMALIAK UDAL ERREGISTROAN INSKRIBITZE.

Kontzeptua	Euro
Harrikotsuak izan daitezkeen animaliak Udal Erregistroan inskribatzea eta arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeagatik baimena emateagatik edo berritzeagatik	74,65

ERANSKINA

18.- DOKUMENTUAK ETA BESTE MATERIAL BATZUK.

1.-UDALTAINGOAREN ZERBITZUAK	
Kontzeptua	Euro
Atestatuen kopia	19,70
Karabinak baimentzea	8,15
Hainbat txostenen kopia	8,15
Istripuen adostasuneko txostenen kopia	8,15
Trafikoko Istripuen atestatuen kopiak	83,55

2.-FOTOKOPIAK	
Kontzeptua	Euro

DIN A4 (bakoitzeko)	0,12
DIN A3 (bakoitzeko)	0,23
DIN A2 (bakoitzeko)	0,44
DIN A0 (bakoitzeko)	3,22
DIN A1 (bakoitzeko)	1,66
Kopia paper orrian (m2)	3,21
Bidaltzeagatik errekgua	5,69
Informatika zerrendak, bakoitzak	4,75

3.-ERREPOGRAFIA ZERBITZUA	
Kontzeptua	Euro
Irudi digitalizatua	0,75
Internet bidez bidalitako irudia (<100kb)	0,75
100 kb gehiagorengatik, bakoitzarengatik	0,38
Zuri beltzean inprimatutako orria	0,09
Koloretan inprimatutako orria	0,12
Koloretan inprimatutako irudia	0,77
Koloretan inprimatutako irudia	0,77
Argazki paperean inprimatzea	0,77
CD-ROMean ematea	3,81

4.-LIBURUTEGIAREN ZERBITZUAK	
Kontzeptua	Euro

Bazkide txartela kopia	3,20
------------------------	------

18.1 ataleko tarifa aplikatzeko arauak:

- 1.- Eskatzaileak behartuta daude eskatzen diren zerbitzuei dagozkien eskubideak aldeztu aurretik ordaintzera, Ordainketa Udal Bilketa Bulegoan egin behar da.
- 2.-Udaltzaingoak ordaindu beharreko tasaren ordainketaren agiria eskatuko die eskatzailei eskatutako dokumentua eman aurretik.
- 3.- Ikastetxeak, erakunde publikoak eta entitate ofizialak salbuetsita daude tasa honetan.

Tarifa aplikatzeko araua, 18.2 eta 18.3 apartatuentzat:

- 1.- Eskatzaileak behartuta daude eskatzen diren zerbitzuei dagozkien eskubideak aldeztu aurretik ordaintzera.
- 2.- Dagokion Udal Zerbitzuak ordaindu beharreko tasaren ordainketaren agiria eskatuko die eskatzailei eskatutako dokumentua eman aurretik
- 3.- Dokumentuak eskatzen dituzten erakunde publikoak, entitate ofizialak eta norbanakoak tasa hau ordaintzetik salbuetsita daude baldin eta dokumentu horiek udalarentzako berarentzako lan bat egiteko baldin badira.

18.4 ataleko tarifa aplikatzeko arauak:

1. Tasa hau ez da ordaindu beharko bazkide egiten denean, hau da, bazkide txartela lehenengo aldian egiten denean.
2. Tasa hau ordainduko dute bazkide txartela galdu duten pertsonak bakarrik. Lapurreta baten ondorioz galtzen bada, ordaindu gabe emango da txartelaren kopia. Lapurreta behar bezala justifikatu beharko da.

ERANSKINA

19.- SUSTATZAILE PARTIKULARRAK UDALAREN KARTOGRAFIA EGUNERATZEAGATIK

Kontzeptua	Euro
Urbanizazio proiektuak (ondoriozko azalera publikoa neurtzea)	
Lehenengo hektarea edo zatia	1.070,90
Handik aurrerako bakoitza	663,55

Obra handiak egiteko lizentziak, eraikuntza berriko eraikinentzat emanak	
Lehengo hektarea edo zatia	1.070,90
Handik aurrerako bakoitza	663,55
Obra handiak egiteko lizentziak, kartografia aldatzea ekarriko duten eraisketak egiteko emanak	
Lehengo hektarea edo zatia	663,55
Handik aurrerako bakoitza	663,55
Obra handiak egiteko lizentziak, fatxaden lerrokadurari edo bide publikoari nolabait eragiten dioten eraikin eraberritzeak egiteko emanak	663,55
Obra handiak egiteko lizentziak, eraikinak altxatzeko emanak	237,40
Obra handiak egiteko lizentziak, eraikinak handitzeko emanak	356,65
Obra handiak egiteko lizentziak, gero eraikuntza lizentziarik eskatuko ez duten lur mugimenduak egiteko emanak	366,60
Obra handiak egiteko lizentziak, jolas lekuak, aisialdiko tokiak edo antzekoak estaltzeko emanak	177,75
Obra handiak egiteko lizentziak ,zuinketak egiaztatzeko ekipo topografikoa beharrezkoa duten obra handietarako lizentziak	375,40

Tarifak aplikatzeko arauak:

1.- Kartografia digitala, edo antzeko teknikekin egindakoa, eskuratzeko tasatik salbuetsita izango dira: Lurraldeko Herri Administrazioak, Euskal Herriko Unibertsitatea, Udalak dokumentu urbanistikoak egiteko hartzen dituenak eta Udalak lan bat egiteko orduan hartutako dokumentazioa eguneratuta itzultzea eskatu eta hala ekarriko dutela agintzen duten profesionalak.